

**Iberpapel**

Euskal enpresak
Argentinako
hezegune bat
suntsitu du

Lurdes Alonso
korrikalaria

«Lilatoiaren helburua
emakumea kirola
egitera bultzatzea
da, kaleari beldurra
galduz»

Net Hurbil

Anti-cut taldeak
murrizketa sozialen
kontra mobilizatzen
hasi dira

Bilbo berria

Eraldaketak ez ditu
arazo sozialak
konpondu

Fermin Muguruza

«Mundu arabiarrean
gertatzen ari dena
ikusita, musikaren
bidez kontatzen
zutena horren
iragarpena zen»

AMAIA VAZQUEZ

psikologoa

«Masokismoan heziak izan gara»



maite ditugu
igandeak

eta hemendik aurrera

are gehiago



Euskal Herriko igandekariaren

aro berria

igandeetan **GARA** -rekin



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iarnetza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuzana



Deabruaren abokatua

- **Iñaki Azkuna:** «Gizarte mediokre batean bizi gara». SUSTRAI COLINA / 5

Asteko gaia

- Itzalak Guggenheimen gerizpean. UNAI BREA / 5

Pertsonaia

- **Amaia Vazquez:** «Gure gizartea plazeraren etsaia da». UXUE ALBERDI / 10

Gaiak

- **Lurdes Alonso:** «Izan dadila Lilatoia proba herrikoietan parte hartzeko tranpolina». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 15
- **Twitter euskaraz.** Hurrengoak gu. LANDER ARBELAITZ / 18

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Nuklearrak? Bai mesedez! B. SARASOLA / 20
- **Burgesiaren diktadura.** IÑAKI ODRIÓZOLA / 21
- **Emozioen hizkuntza.** DABID ANAUT / 22
- **Txandan** Esadazu... CASTILLO SUAREZ / 22
- **Zirtak** Munduaren orpoa. JOSE INAZIO BASTERRETXE / 23
- **Bertso berriak** G kontua. XABI PAYA / 24

Erdiko kaiera

- **Fermin Muguruza:** «Uneotan Al Jazeera English da komunikabiderik interesgarriena». MIKEL GARCIA / 25
- **Musika.** Errealitate bizia bildu nahi duen webgunea. INAXIO ESNAOLA / 28
- **Liburuak** XABIER ETXANIZ ERLE / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32 • **Abarrak** MIKEL ASURMENDI / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Iberpapel.** Euskal Herrian uso, Argentinan otso. URKO APAOLAZA / 39
- **Txinako ekonomia.** 2020an pelotoiaren buru, baina ongizatearen karreran erratzak harrapatzeko zorian. DANIEL UDALAITZ / 42
- **Gazte ekoliderrak.** Geroa zaintzeko eragile berriak. SAIOA LABAKA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Zerbitzu publikoak murriztearen aurka borrokak nonahi. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Horrorea.** AINGERU EPALTZA / 50



“Gizarte mediokre batean bizi gara”

Iñaki Azkuna | Medikua

San Balendin egun batez sortu zela sinestea ere...

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Bilbo “Bilbao” denetik askoz hobeki doa mundua.
Ez dakigu “Bilbo” euskara, gaztelera, edo hibrido arraro bat den. Utz dezagun “Bilbao”, eta suposatu dezagun euskara dela.

Zure euskara mailak liluratuta nauka.

Euskara da nire ama hizkuntza. Galdu nuen arren nire buruan dago, eta hil aurretik berreskuratu nahi nuke. Gaur egungo politikari batek derrigorrez jakin behar luke euskaraz.

Egia izango da Egibar eta zu alderdi berekoak zaretela!

Batzuei sinesgaitza zaien arren, hala da. Biak gara abertzaleak, biek sinisten dugu euskal nazio eta aberrian, eta hortik aurrera... Uler-tuko duzunez 68 urterekin ez daukat aldatzeko asmorik. Errenkarnazioan, agian...

68 urte, adin ederra... erretiratzeko.

Frankismoan, Bilbaoko alkatetzan hamasei urte eman zituen batek. Nik marka hori demokrazian hautsi nahiko nuke. Ilusiorik falta ez zaidanez, herritarrek jubilatzen naute ikusi nahi dut. Txarto iruditzen?

Politikariak oso gaizki baloratuta zaudetela iruditzen zait niri.

Politikan, jakintzaren beste adar batzuetan bezala, jende mediokre asko dabilelako da hori. Urrezko aroak ezagutu ditugu baina gizarte mediokre batean bizi gara.

Hori da hori autokritika egitea!

Jaurlaritzan nengoenean ez neukan gaur jen-

dearekin daukadan tratua %10a, Madrilen banengo ez nuke %1a ere izango, eta Europan ez duzu hiritarrik ikusten bizitza guztian. Hori hala, ez diotsut dena ondo egin dudarik, gaizki zer egin dudanez galdetzeko baizik.

Hauxe da konpartsei buruz hitz egiteko unea, beraz?

Jaietan jaia egin behar da, ez politika. Hori hala den artean denak ados gaude eta ez dago arazorik.

Jakina, zuk txosnekin egiten duzuna ez da politika.

Eclesiastes-zalea bazara eta sortzea, haztea, eta ugaltzea politikan sartzen badituzu, bestela esango dizut. Ez dezatela alderdikieriaz jokatu eta *politikilla*-rik egin. Gainontzean, asteazkenean atseden hartzea primeran iruditut zitzaidan. Ostegunean indartsuago zeuden.

Katalunian zezenketak debekatzen dituen legea *politikilla* da zuretzat?

Nik ez dut inoren kontra egingo, Bilbaoko zezenketen alde baizik. Sekulako tradizioa dago, sekulako aberastasuna da hiriarentzat, eta ez dut jairik irudikatzen zezenketarik gabe. Oso zaila da legez horrekin amaitzea.

Ai, ai, ai... Mentalitateak Bilbao bezain arin aldatuko balira...

Itsasadarrari bizkarra ematetik itsasadarrarekin bizitzera pasa garenetik, etxeko oinetakoekin atera daiteke paseatzera. Ez zegoen besterik, eraldatu ala hil. ■

Bilboren eraldaketa

Itzalak Guggenheimen gerizpean

Euskal Herriko hiri bakartzat jotzen dena laudorioak jasotzen ohitua dugu azken boladan. Industriaren aroa gainditzeko Bilbok egindako eraldaketa oraindik burutu gabea txalotua da nonahi, non ez zuzenean saritua eta eredu modura hartu izan da munduan. “Bilbo efektua” esamoldea nazioartean erabiltzen da orain. Bada, ordea, alfonbra azpian zer estali.

UNAI BREA

IÑIGO AZKONA



Gorteetako kalea, San Frantzisko auzoan. Bertako elkarte askok salatzen dute Udalak ez duela plan eraginkorrik egiten azken hamarkadetan jasaten duten gizarte-bazterketari behingoz aurre egiteko. Bilbo berriak nazioartera esportatzen duen distiratik gutxi dago kale hauetan, oraindik piztuta irauten neoizko argi bakanetakoa ez bada.

“ERALDATU ALA HIL” esaldiarekin amaitzen da aurreko orrialdeko elkarrizketa. Hiriak beste irtenbiderik ez zeukala dio Bilboko alkateak, Iñaki Azkunak. Bilbao esaten dio berak. Historia ezaguna da, zertarako denbora gehiegi galdu berriz gogoratzen: behinola-ko hiri industrial oparo bezain zatarrak, orduko eredu ekonomikoaren krisiak jota, birmoldatzeari ekitea beste irtenbiderik ez

zuen izan 80ko hamarkadan, munduan beste askok bezala. Emaiza industria-oste aroko metropoli dotorea da, munduan harro erakustekoa, are harroago berriki jasotako sariak beraren curriculumare edertzen dutenetik. Bisitariak erakartzeko gauza bihurtu da Bilbo, eta transformazioaren onurak eta merituak behin eta berriz gogorazten dizkigute masaren iritzia moldatzen duten hedabide nagusiek.



NORDICDESIGN-CC BY SA

Hala da oraindik, transformazioa ez baita burutu, etengabe gauzatzen ari da azken hiru hamarkadetan. Lerro hauek idazteko unean kasik, Garellanoko ingurua eraldatzeko planen berri eman du Bilbao Ría 2000k, 1992an erakunde publikoek sortutako sozietate anonimoak. Haren eskutik etorri dira Bilbori aurpegia aldatu dioten ekintza gehienak. Iragan industrialak utzitako espazioak eraldatzeaz arduratzen da elkarteak, haien lekuan plaza, parke, auzune, azpiegiturak... jarrita. Lan eskerga: iragan industrialak utzitako espazioa oso handia da Bilbon eta inguruko hirietan.

Joan gaitezen historiaren hasierara. Bilbok, edo zehatzago esanda frankismoak Bilbo Handi modura bataiatu zuenak, bere burua eraldatu behar izan zuen industria oinarri zeukan ereduarenak egin zuenean. Hori horrela da, baina interpretazioa desberdina izan daiteke, nork egin. Ibon Areso arkitektoak, Bilbo berriaren ideologo nagusietakoa denak –eta Ur Partzuergoko presidente, eta Bilboko Udaletxeko alkateorde, bere curriculum ikaragarriaren ezipal bi besterik ez aipatzeagatik–, honela esan zion hau sinatzen duen kazetariari, beste garai batean eta beste hedabide batentzat: “80ko hamarkadaren erdian argi zegoen industria ardatz zeukan hiriaren erdua behin betiko galduta zegoela. 70ekoan uste genuen petrolioaren krisiak zeukala errua, eta igaroko zirela garai txarrak, baina 85erako garbi zegoen ezetz. Egokitu beharra zegoen. Hori ez zaio Bilbori soilik gertatu, munduko industria-hiri guztiei baik: Pittsburgh, Glasgow, Rotterdam, Man-

Euskalduna Jauregia da Bilbon azken hamarkada bietan altxatu diren ikonoetan garrantzitsuenetakoa. Erakundeek sustatu nahi duten biltzar handietako turismoak ezinbestean behar zuen eraikina.

chester...”. Arazoa ez zen, Aresoren esanetan, industria bera agortua zenik, lanposturik sortzen ez zuela baizik. Mekanizazioari esker, aberastasun gehiago sortzen zen baina langile gutxiagorekin. “Kontua, guretzat, aberastasun hori banatzea zen, eta horretarako industriak dagoeneko ematen ez zituen lanpostuak sortu behar ziren”.

Transnazionalek jotako doinuan

Ikus dezagun orain nola deskribatu zuen prozesu bera Soledad Frías izenarekin sinatzen zuen barakaldarrak, *Ekintza Zuzena* aldizkari libertarioaren 1995eko zenbaki batean: “Industria tradizional eta kutsatzaileak soldata merkeak dituzten Hegoaldeko herrialdeetara joaten dira. Iparraldeko herrialdeek goimailako teknologia daukaten industria bakarrik atxikitzen dute; prozesuak robotizatu daude eta apenas sortzen duten enplegurik. Transnazionalek ondutako munduko ekonomia berri horretan, industriaren gainbehera jasan duten eskualdeei hirugarren sektorerara lerratzea dagokie”.

Bilboren eraldaketaz asko idatzi eta gehiago berba egin da, baina, esan dugu lehenago, ia beti onerako. Soledad Fríasena bezalako testu kritikoak aurkitzea, aldiz, oso zaila da. Froga ederra da 1995etik hona ildo berean idatzitako ia ezer aurkitu ez izana, bilaketan orduak eman arren. Frías bera, bere analisia idatzi zuenerako, jabetua zen horretaz: “Transnazionalen egitasmoa onartua izan da, azterketa kritikorik egin gabe”. Izan ere, hiriaren transformazioa nola gauzatu erabaki den gunetatik at egon



ARETA-CC. By SA

Beste ikono bat: fosterittoa. Hiriaren eraldaketaren hasiera Metroaren inaugurazioa izan zen, zenbaiten ustez.

dira auzotar elkarteak, sindikatuak eta talde ekologistak, orain dela hamasei urte Fríasek aipatzen zituenak aipatzeagatik. Eta, erabakiguneetan egoten utzi dietenean, horixe besterik ezin izan dutela egin –alegia, egon– salatzzen dute horietako batzuek.

Gutxi hitz egin da, esaterako, bigarren sektoretik hirugarrenera egindako bidaiaren ordainaz. 1995ean, hipermerkatu handi bi eraiki berri zeuden Sestao eta Barakaldo arteko ibarrean. Soledad Fríasek ondo aurreikusi zuen geroa: “Gehiago etorriko dira, duda barik. Eta behin-betiko sareak era guztietako sarbideak izango ditu; zerbait izan nahi duen metropoli batek hala behar du”. Behinola padura eskerga zena gaur egun ikusi besterik ez dago: hasierako hipermerkatu bi haiek tantatxoak dira orain, hiri berria bailitzan altxatu den merkataritzagune erraldoiaren barruan. Eta Ezkerraldekoa nahikoa ez balitz, azalera handiko salerosketa guneak eraiki dira halaber Uribe Kostan, Hego Uriben... Bilbo Handiko 900.000 biztanleen “beharrak” ase behar dira; zerbitzu-hirien ezinbesteko osagaia kontsumoa da eta. Prozesuaren ondorio nagusiak ezagunak dira: milaka eta



BODADORADA-CC. By SA

Zorroazurreko penintsula, eraldatzeko geratzen den azken lur-eremu handia.

milaka bidaia autoz, uniformizazio kulturala, hiri barruetako denda txikien gainbehera... Enpleguaren ikuspuntutik, berriz, bigarren sektoretik hirugarrenarako jauzia ez da erakunde publikoek aldarrikatzen duten bezain aseptikoa izan. Berritro ere Soledad Frías profetarena egiten: “Eroskin dauzkaten lan-baldintzak ikusita, merkataritza-gune handietan lanpostua lortzeko asmoa dutenak beldurtzeko arrazoirik badute”. Horren baieztapena, besteak beste, aldizkari honetan bertan argitaratutako *Kontsumo merkea garesti ordaintzen da* erreportajearen (ARGIA, 2.176. zenbakia) aurkitu dezakezue.

Bilbo efektua

Hala ere, Bilbok munduari saldu diona ez da bere eraldaketa sozio-ekonomikoa, hirigintzaren arloan egindakoa baizik. 2004an Ibon Aresok egindako adierazpenek argi uzten zuten, badaezpada bere begiz ikusita konturatu ez zen norbait gelditzen bazen, hiriaren metamorfosian garrantzi handia zutela ikono arkitektoniko handiek, eta errealtateak erakutsi du, erakutsi duenez, agintariak ez direla hitzetara mugatu. Ospe handiko eraikin

arabako bertsolari txapelketa 2011 bete!

Antolatzailea: Babesle Nagusiak

Obra Social Fundación "la Caixa"

radio vitoria

ARABAKO ERROSA

Sarrerak erosteko egun berean takilan

2. FINALERDIA

martxoak 19, larunbata, 17:30ean

ARAMAIOko Kultur Etxean

www.arabakotxapelketa.org

Gai-jartzailea
BERAT GOITIA

Asier Otamendi
Iñaki Viñaspre
Izhar Mendiguren
Ekaitz Samaniego
Xabier Igoa
Rikardo Gz. de Durana

argia

Sexu-askatasuna mugatuta dago Bilbon?

Imanol Alvarez EHGAmeke kideak ez du zalantzarik: Bilboko Espazio Publikoaren Ordenantza berria sexu-askatasunaren aurkakoa da. “Orain dela lau zapabost urte saiatu ziren kaleko prostituzioa debekatzen eta porrot egin zuten”, adierazi digu, “ordenantza labur bat egin zuten propio horretarako, baina zenbait elkarte lortu genuen geldiaraztea”. Iazko irailean indarrean sartu dena, berriz, Udalaren B plana da, Alvarezen ustez. “Ez ziren konforme geratu eta nola edo hala egin nahi izan zuten ordenantza hura, bide batez beste gauza batzuk sartuz”.

Azkenean, *totum revolutum* bat da argitaratu dena: musika, jolasak... Kanean egin litekeen edozer dago araututa eta, dagokionean, zigortuta, ez nolanahiko isunekin, bidenabar esateko. 16. artikulua da sexuari dagokiona, eta horretaz mintzatu zaigu Alvarez: “Debekatuta daude, ordenantzaren arabera, ‘sexua esplizituki jende aurrean eta era nabarmenean azaltzen duten jardute eta ekintza guztiak’. Honen interpretazioa oso zabala da”. Hain zabala, non dagoeneko behin jazo

baita udaltzain batek isunarekin mehatxu egitea emakume bikote bat, kanean musu emateagatik. “Ordenantzarako alegazioak aurkeztu genituenean Udalak erantzun zigun ez zirela nahastu behar musuak eta laztanak sexu esplizituarekin, baina honezkero ikusi dugu arauaren aplikazioa udaltzain bakoitzak une bakoitzean desgokitzat daukanaren arabera izan daitekeela”.

VANESSA SMEETS



zerrenda ezagun bezain luzea da, baina bat gailentzen da ezbairik gabe: Guggenheim museoa. Hari egozten zaio nazioartean “Bilbo efektua” izenez ezagutzen den fenomenoaren jatorria izatea. Efektu hori definitzeko modu bat hau da: hiri industrial periferiko bat, 90eko hamarkadaren hasieran krisi sozial eta ekonomiko larrian zegoena, hamar urteren buruan bere aktibitate kulturalagatik, bere bizi-mailagatik eta bere ingurumenagatik ospetsu bihurtzen deneko prozesua. Bada beste definizio hau ere: kulturaren erabilera espekulatibo, instrumental eta instituzionalizatuaren bidez gauzatutako efektu triunfalista eta irudipenezkoa. Hots, lehenbiziko definizioa bada zuzena, orduan Bilbo efektua ez da oraindik Bilbo osora iritsi. Zuek aukeratu.

Guggenheimek onura handirik ez arteari

Komeniko litzateke, behin hona ailegatuta, eta labur-labur bada ere, Guggenheimek artearen esparruan izan duen eragina neurteza, eraikina, turistak saldoka erakartzen dituen ikonoaz gain, arte-educiontzia denez gero. “Uste dut Guggenheimek arrakasta mediatiko eta ekonomiko handia izan duela, eta beraz helburua bete duela, horretarako egin zuten eta”, iritzi dio Ismael Manterola EHUKo Arte Ederretako irakasleak. “Baina ez dio eman bultzadarik euskal arteari; alderantziz, diru gehiena berak xurgatu du eta beste ekimenetarako tarte txikia geratu da. Eta museoak berak ez du sortu, iragartzen zuten bezala, artearekiko interes izugarria gurean. Horretan lehen bezala gaude, edo

antzer. Hori bai, hedabide kontserbadoreak arte garaikideaz hitz egiten has daitezen balio izan du behintzat, lehen tabua baitzen haienztzat”. Manterolaren hitzak baino erabatekoa goa da bere fakultateko ikasle bat prestatzen ari den doktorego-tesiaren ondorio nagusia: “Arte garaikide museo batek izan behar ez duenaren eredia da Guggenheim”.

Arkitektoak entzutetsua behar du

Gehryren titaniozko ontzia ez doa bakarrik bidaia honetan. Nortasun handiko eraikinek bete dute industri ehunak utzitako lekuaren zati bat: Euskalduna Jauregiak, Isozaki dorreek, Calatravaren zubiak, bere polemika eta guzti, Loiuko aireportuak... Metroko sarrera-irteerek eurek ere. Nazioarteko ospea duten arkitekto entzutetsuei eskatutako lanak. Iñaki Uriarte bizkaitar arkitekto eta, beraren berbak erabilita, hiri-behatzailearekin jardun dugu honetaz. “Izen handiak kontratatzeak zer ekarpen egiten du? Sentsazionalismoa. Baina autoestimu falta adierazten du. Badirudi uste dutela bertoko arkitektoek ez gabela gauza proiektu horiek aurrera ateratzeko”. Bestalde, aipatutako proiektuetako asko lehiaketa publikorik gabe ematen ari direla azpimarratu du Uriartek. “Ez doa legez kontra hala egin dutenetan, baina garbiena lehiaketa litzateke”. Lehiaketarik gabe esleitu diren egitasmoen artean, Uriarteri bereziki aipagarria iruditzen zaio Zorrozaurren birmoldatzea. “700.000 metro koadroko penintsula bat berriz diseinatzeko eskatu diote hirigintzan eskarmenturik ez duen Zaha Hadid arkitektoari, herritarrei kontsultatu gabe”.

Bilboren gentrifikazioa

Esan dugunez, industria aroa agortzeak espazio asko utzi zuen libre. Espekulaziorako, esan nahi baita. Aipatu berri dugun Zorrozaurre, hasieran gogora ekarri dugun Garellanokoa, edo San Mames berriarena, esaterako, higiezin-operazio erraldoi baten azkenaurreko pasarteak baino ez dira. Horixe da Bilbao Ría 2000 elkarteak kudeatu duena, beren bozgorailu apaletatik ahots kritikoek diotenez. Metro koadro asko birsailkatu dira, eta finantzazio publikoz ordaindu da Bilbo berria, bilbotar guztientzat ez dena, bide batez esateko. Halaxe gogoratzen dute, berbarako, Garikoitz Gamarrak eta Andeka Larreak *Bilbao y su doble* liburuan. *¿Regeneración urbanística o destrucción de la vida pública?*, hala dio liburuaren azpitituluak. Hiriaren birsortzea ala bizitza publikoaren suntsiketa? Galderak badu mamia. Larreak berak liburuaren aurkezpen-testu batean dioenez, “helburua operazio ekonomiko-urbanistiko handia egitea zen, zeinak itsasadar ertzeko degradatutako industria-guneak luxuzko inguru bihurtuko baitzituen”. Operazio horri eman zaizkion izenak, Larrearen ustez, eufemismoak baizik ez dira: “Hor dagoena zera da: espazio publikoaren pribatizazioa”.

Ondorioetako bat gentrifikazioa da. Gutxi entzuten den hitza. Batzuek elitizazio proposatzen dute, gauza bera adierazteko, agian horrela hobeto ulertzen da. Ahalik eta modurik laburrenean esanda, gentrifikazioa da hiri-ko alde bat berrituz jatorrizko biztanleak bertatik alde egitera behartzea, haien lekua maila ekonomiko handiagoa daukaten beste batzuek hartzeko. Egin izan dira ekintza sinbolikoak, gogorarazteko orain Guggenheim dagoen lekuan ez dabilzala lehen zebiltzan pertsona berak, txoko diskretuagoak bilatzera behartuta, baina oro har ez da asko eztabai-

datu gentrifikazioaz Bilbon, nahiz eta mundu guztiak dakien agertu diren —eta agertzeko dauden— auzo berrietan bizitzea ez dagoela herritar arruntaren esku, legeak ezarritako babes ofizialeko etxebizitzaren kuota aparte utzita.

Auzo baztertuen aldarria

“Pentsatu izan dugu ea hori ote zen Udalaren plana gure auzoetarako”, diosku gentrifikazioaz Patxi Manriquek, San Frantzisko, Zabala eta Bilbo Zaharreko taldeen koordinakundeko kideak. Bilboko bazterretako auzo elkarte guztiek diote hiriaren operatuzon berri hau ez zaiela beraiei nahi luketen neur-

rrian heltzen, baina kasu lazgarri bat badago, aipatutako hirurena da. Egin diren inbertsio publikoek, bertatik dabilen edonor berehala ohartuko denez, dezentte edertu diote bisaia etxaurreei eta baita, Manriqueren esanetan, etxe barruei ere. Baina benetako arazoari ez zaiola heltzen sala-

tzen du gure mintzakideak: “Bazterketa sozial latza jasaten dugu aspalditik, eta Udaletxeak ez du horren kontrako plan eraginkorrik diseinatzeko, irudia saltzen ari dira, besterik ez. Ez dakigu gentrifikazioa duten helburu, baina izan planifikatutako zerbait, izan gauzak gehiegi planifikatu gabe egiten dituztela, hartutako zenbait politikaren ondorioa horixe izaten ari da”.

Betiko kontuak, esango du baten batek. Udalak eginahalak eginda ere, beti egongo da kexatzen denik, auzoek beti eskatuko dute gehiago. Ukaezina da hiri handi guztietan daudela kontrasteak, eta Bilbo ez da salbuespena. Ez gaitezen harritu. 1995ean Soledad Fríasek ohartarazi zigun transnazionalen planen arabera ari zela Bilbo aldatzen, eta guregana iritsi dena ezin zitekeen izan neoliberalismoaren ezaugarriarik behinenak biltzen dituen hiri bat baizik: Bilbao. ■

Bilboren eraldaketa, azken batean, higiezin-operazio erraldoia da, espazioa publikoarena pribatizatzeak ondorioa daukana

arabako bertsoari txapelketa 2011 bete!



Antolatzailea: Babesle Nagusiak

Obra Social Fundación "la Caixa"

radio vitoria

ARABAKO BERTSOARI TXAPELKETA 2011

Sarrerak erosteko egun berean takilan

3. FINALERDIA

martxoak 20, igandea, 17:30ean

AGURAINgo Harresi aretoan

www.arabakotxapelketa.org

Gai-jartzailea: **OLATZ BAYER**

Ander Solozabal
Zigor Enbeita
Juan Mari Juaristi
Ruben Sanchez
Unai Mendibil
Beito Martinez

argia

Amaia Vazquez

«Gure gizartea plazeraren etsaia da»

Inoiz hartu al duzu besotan behin izan zinen haurra?

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Psikologo askok bezeroen haurtzaroa aztertu ohi duzue haien orainaldiko korapiloak askatzeko. Nolakoa izan zen zurea?

Pertsona guztiok egiten gara familia-testuinguru jakin batean, familia estilo batean. Nire familia langilea, intelektuala eta oso konprometitua da. Horrek markatu ninduen lehenbizi. Asko damutzen naiz gauza batekin: Marx 14 urterekin irakurri nuen, eta hori ez da egin behar. Egoera politikoak ere izugarritzko eragina izan zuen nigan: Francoren errepresioak, arlo guztietakoak. Oso goiz hasi ginen hainbat taldetan militatzen, eta horrek bere abantailak eta desabantailak izan zituen gudan. Asko irakatsi ziguten borroka haiek, baina freskotasuna galdu genuen. Feminismoaren diskurtsoaren hasierak ere asko markatu ninduen, orduan sortu zitzaizdan sexologia ikasteko grina. Gu oso liberalak ginen, gure belaunaldikoak izan ziren birjinitatearen transgresioa, intsumisioa, neska-mutilen arteko harreman libreak... Gure koadrilan transgresioa eta askatasun grina eguneroko ogia ziren. Ikasi ere institutu esperimental batean ikasi genuen: libururik gabe, irakasle oso gazteekin —eta denak Alderdi Komunistakoak, LKikoak...—. Faktore horiek guztiek asko osatu ninduen pertsona bezala.

Askotan aipatu izan duzu zure haurtzaroan sexu-errepresioa esplizitua zela, eta oraingo uestzko askatasun hau are arriskutsuagoa dela.

Gure garaian esaten ziguten: “Masturbatzea txarra da”, “masturbatzea bekatua da”, “neskak ez dira masturbatzen”, “birjinitatea oso balore inportantea da”, “neskek ez dituzte genitalak erakusten”... Mezuak oso zuzenak

ziren eta, beraz, transgreditu nahi zituenak zuzenean transgreditzen zituen, ez zegoen ezkutuko zirrikiturik. Gaur egun, teoriarik, dena da posible, baina baita zera ere, errepresioaren bideak aldatu egin dira. Mutil askok, esaterako, exigentziaren bidetik erreprimitzen dute euren burua. Esaten zaie: “Neskek multiorgasmikoak dira”, eta haien neskalagunek ez badituzte bost orgasmo izaten errudun sentitzen dira, frustratuta eta euren desioan erreprimetuta. Informazio jakin bat emozioen kontra erabiltzea da errepresioa. Nesken kasuan, aldiz, ez zaio “ezin dituzu kulerok erakutsi” esaten, “eseri ondo” esaten zaio. Badirudi ez dugula erreprimitzen, baina gauza bera da! Ezkutututa, baina errepresio berbera. Oso errepresio sotila. Gaur egungo mito sexualak lehengoak bezain errepressoak dira eta, nire ikuspegitik, okerragoak, ezkutukoak direlako eta gure benetako desioetik asko urruntzen gaituztelako.

Sexu-hezkuntza eta psikologo-terapeuta lanak uztartzen dituzu, baina bi lanetan abiatzen zara

Nortasun agiria

Amaia Vazquez Deustun jaio zen 1961eko urriaren 3an, baina Hernanin du bizitokia aspalditik. Psikologo klinikoa eta sexologoa da, eta hainbat arlotan aritzen da lanean: haur eta gaztetxoaren prebentzioan eta irakasleen eta gurasoen formakuntzan, psikoterapian... Hernanin du kontsulta, eskolaz eskola eta herriz herri aritzen da hitzaldiak eta formakuntza zikloak ematen eta irrati uhinetan ere ezaguna da bere ahotsa.





puntu beretik: bizipenek sortzen dizkiguten emozioetatik.

Hala da. Azken finean, depresioaz hitz egitea, sexualitateaz hitz egitea, haurren beharrez hitz egitea... emozioez hitz egitea da. Nola kudeatzen ditu gure izaerak emozioak? Hori da galdera. Gu pozik egoteko, ongi egoteko eta plazerean egoteko programatuta jaiotzen gara, baina, zoritxarrez, hainbat aldagairen ondorioz, maiz ez da posible izaten egoera horretan mantentzea. Beraz, egin behar dugun bakarra biologiak ematen diguna berreskuratzea da. Hori bezain sinplea eta konplexua da gure lana.

Beraz, zoriontasuna desikaste ariketa da?

Zoritxarrez, bai. Egoera naturala, biologiak markatzen diguna ondo egotea da, lasai eta zoriontsu egotea, baina berreskuratu egin behar izaten dugu, bidean galtzen baitugu. Eta, hain zuzen, horixe da psikologoaren lana: desprogramatzea. Eta zenbat eta lehenago hobe, horregatik da hain garrantzitsua haurren prebentzioa.

Haurren prebentzioaz ari zarenean, zertaz ari zara?

Umearengan dago gakoa. Haurtzaroan dago gakoa. Gure garaian uste zen umeak ez zirela ezertaz ohartzin eta ez zutela ezer behar. Baina kontrakoa da! Umeak dena daki, eta

dena behar du. Garai hartan emakumeak lan mundura eta eremu publikora ateratzen ari ginen, familiaren egitura aldatzen ari zen eta haurren behar emozionalak ezkutatu egin behar ziren, emakumeak errudun senti ez zitezen. Haurtzaindegira eraman behar genituen, ezin genituen besotan hartu gaizki ohi-tzen zirelako, negar egiten zutenean ez zitzaaien kasurik egin behar, emakumeak haurdunaldia eta erditzeak teknologiaren eskutan jartzen hasi ziren, haurrei ez zitzaaien bularra eman behar... Filosofia hori zabaldu zen, mezu horiek bidali zizkiguten. Eta haur asko emozionalki abandonatuak izan ziren. Haur bat emozioa eta sexualitatea da, erotismoa eta plazera, eta kutsatzen ez badugu haurra osasuntsu haziko da. Haurtzaroan beti daude presente gorputza, plazera eta jakin-mina. Haurrei kontaktuaren bidez plazera ematen badiegu, gerora ez diote plazerari bel-durrik izango.

Oro har, plazerari beldurra dion gizartean bizi garela uste duzu?

Bai, hori da nire filosofiaren ardatza. Masokismoan heziak izan gara. Lehen argi zegoen, erlijio katolikoak sufrimenduaren eta sakrifizioaren apologia egiten zuen, baina gizarte modernoan dena plazera dela saltzen digute, dena dela libertatea, aisia, eta "orain eta hemen" bizitzea. Eta gezurra da. Saltzen

diguten plazerak euforiarekin du zerikusia, depresioaren beste aldearekin. Euforia ihesbide emozionala da. *Boteiloia* plazera da? Hamabost zerbeza eta hiru kokaina marra dira plazera? Futbol partida bateko aztoramendua da plazera? Hori ez da plazera. Gizarte modernoan plazeraren kontzeptua ez dago ondo definituta. Lanean hasi nintzeanean ohartu nintzen bezero askok, ondo sentitzen hasten zirenean, bat-batean, izugarriko atzerapausoa izaten zutela. Plazerera hurbildu ahala, beldurtuta, atzera egiten zuten bezeroek. Ezin zuten ondo egotea jasan. Sistema oso ondo antolatua dago guk ezer senti ez dezagun. Horretan dago oinarrituta makina, sentimenduen ukazioan. Denbora apur bat hartu eta sentitzen hasten bazara, akabo, kaka eginda zaude, hobe lanera itzultzea. Gure gizarte plazeraren etsaia da.

"Munduaren historian psikologoaren beharra- rekin jaio diren lehenengo haurrak sortu ditugu" kantatzen du Mikel Markezek.

Erabat ados nago, nik nahiago nuke umee- benetan hainbesteko beharrik ez izatea, eta horretarako egiten dut lan prebentzioan eta osasunean. Nik sufritu egiten dut haurrak sufritzen ikustean.

Hala ere, "hautzaro zoriontsua"ren mitoak indar handia du oraindik.

Zoriontasun puruaren ideia gezurra da, haur- rek sufritu egiten dute, baita sano egonda ere. Hautzaroa berez zoriontsua da, baina baita konfliktu-ko bete ere. Krisiei eta kon- fliktoei esker garatzen gara, baina konpainia eta laguntza behar ditugu krisi horietan. Beraz, haurren zoriontasuna helduen eskue- tan dago neurri handi batean. Sufrimenduz ari garenean sufrimendu emankorra eta sun- tsitzailea bereizi behar ditugu. Helduok onartu egin behar dugu haurren sufrimen- dua, eta beraien ondoan egon behar dugu eraikitzailea izan daitekeen sufrimendua sun- tsitzaile bilakatu ez dadin. Gurea amortigoa- dore lana da. Autonomiarantz joaten lagun- du behar diegu, abandonatu gabe eta gain-babesik gabe.

Haurren prebentzioa haurdunalditik eta erditze- tik bertatik hasi behar dela diozu. Gaur egun emakumeen %95a epiduralarekin erditzen da, "zertarako alferrik sufritu?" argudiatuta. Zerga- tik zara zu erditze naturalaren aldekoa?

Ama izan nintzen garaian haurdunaldia eta erditzea medikuen eskuetan jartzen ziren, eta emakumeek protagonismoa galdu zuten era- bat. Nik, feminista izanik, emakumezkook —eta gizonezkoek ere bai— guraso izatea era- bakitzen dugunean gure protagonismoa

Sexuaz euskaraz

"Iraultza izan zen sexologiaz euskaraz hitz egiten hastea. Lehenengo urteetan diskurtso harekin gazteak praktika ez- sanoetara bultzatzen ari nintzela esaten zidaten, helduak oso inbadituta sentitzen ziren... Esperientzia dibertigarriena Euskadi Irratikoa izan zen: Arantxa Iturbek eta Jaime Otamendik Euskadi Irratian elkarrizketa egin zidaten eta nik zakilaz, orgasmoaz, klitoriaz, plazeraz eta gorputzaz hitz egin nuen. Hitz haiek, euskaraz, eztanda egiten zuten belarrietan. Hala ere, Arantxak eta Jaimek eurekin astero kolaboratzea eskaini zidaten, eta nik onartu. Gainera, goizez egiten genuen, pentsa. Telefonoa sutan jartzen genuen: haserre deitzen zigun jendeak, ea nolatan egin genezakeen saio hura diru publikoarekin".

berreskuratu behar dugula uste dut. Lan munduan, sexualitatearen munduan, harre- manetan eskuratu behar dugun bezala, haur- dunaldian eta erditzeetan ere bai. Garai har- tan ospitaleetan jaio bezain pronto umea amarengandik bereizten zuten sei orduz. Ez zuten emakumearen erritmo naturala erres- petatzen, denak lehenbailehen erditu behar ziren, zesarea kopuruak gora egin zuen... Zorionez, duela urte pare batetik hona asko hobetu dira gauzak ospitaleetan. Bi gauza defendatu behar ditugu: emakumeen prota- gonismoa beren haurdunaldi eta erditzeetan eta haien umearekiko lotura, ama-umeen behar afektiboak errespetatzea: haurra jaio bezain pronto amarengandik ez bereiztea, haurra ez berehala bainatzea, koloniarik ez botatzea... Eta edoskitze naturala bultzatzea, jakina.

Teknologia gurasoen independentziaren mese- detan garatzen dela esaten da, ordea.

Teknologia gurasoak eta haurrak lehenbaile- hen bereizteko garatu da, eta zenbat eta lehe- nago bereizten dituzun, haurrek orduan eta dependentzia handiagoa izango dute. Hau- rrei dependentzia bizitzen utzi behar zaie gero autonomoak izan daitezen. Depend- entzia bizitzen utzi zaien haurrek 7-8 urterekin haizea hartzera bidaltzen zaituzte, eta 15ekin zer esanik ez, ikaragarri autonomoak izaten dira. Jakina, gero hori onartu behar da, beraien autonomia errespetatu behar dugu, bertigoa ematen du haurrak gauza askotarako jada ez gaituztela behar sentitzeak. Baina hori da bizitza. Zertarako ekartzen ditugu haurrak mundura? Beren bizitza bizi dezaten.

Zeintzuk dira pertsonak zoriontasunetik urrun- tzen gaituzten faktore nagusiak?

Hasteko, lan-sistema. Denbora pila bat ken- tzen digu alferrik. Bestetik, ez dakigu harre- manetan egoten, ez dakigu jendearengana maitasunetik, afektibitateetik hurbiltzen. Bakardadea, indibidualtasuna... Eta arrazio- nalitatearen inperioa emozioen kaltetan.

Urteotan, pertsona, kasu eta bizipen asko eza- gutu dituzu, zeintzuk esango zenuke direla gaur egungo blokeo nagusiak?

40 urtetik beherako pertsonak dira gizarte aldaketaren ondorio latzenak jasan dituztenak. Gaur egun bakarrik geratzeari edo abandona- tuak izateari diogun beldurrarekin aritzen gara lanean, batez ere. Beldur hori berezkoa da hautzaroan baina, zoritxarrez, askok benetan bizi izan dute abandonuaren esperientzia, eta horrek izugarri markatzen gaitu, baldintzatu egiten du gerora harremanak eraikitzeko izan- go dugun modua. Zailtasunik handienak

harremanetan ikusten ditugu: dependentzia guztiak hortik datoz. Esango nuke abandonatuak izan garela emozionalki, batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago. Kasu gutxi egin digutela uste dut, mimo gutxi egin dizkigutela, sasi-autonomiaren mesedetan asko exijitu digutela kognitiboki, eta ezin izan diogula egoera horri erantzun. Ez digute dependentzia bizitzen utzi, eta behar horretara kateaturik geratu gara. Baina, jakina, dependentzia bizitzen uzteak lehenengo zazpi urtetan umea zintzilik izatea esan nahi du, eta guk haurrak berehala autonomoak izatean nahi dugu: 4 hilabeterekin haurtzaindegira eramaten ditugu. Eta haurtzaindegiak beharrezkoak dira, baina ez gaur egun daukagun filosofiarekin! Daukagun egitura sozialean haurra azkena da. Aurrena behar luke, baina azkena da. Gu haurtzaroaren defendatzaile sutsuak gara, gauzak gaizki egiten ari dira, gero eta gehiago dira haurtzaroko gaixotasunak: asma, bronkiolitisak, anginak, hiperaktibitatea... Hiperaktibitatea: hara hor benetan gertatzen dena ezkutatzeko modernitateak sortu duen beste diagnostiko bat. Hiperaktiboa da, ados. Aztoratuta dago, ados. Eta nola eutsiko diogu? Nola kontentutuko dugu? Dopaminarekin? Ala gure gorputzarekin? Psikologoek, irakasleek eta gurasoek badakite, sen ona aplikatzen dutenean bai behintzat, gorputzak sendatu egiten duela.

Eskoletan ere norabide honetan egiten duzu lan?

Eskoletara kasuak ikuskatzera joaten naizenean ere atxikimendua da aztertzen dudana. Eta askotan esaten diet: badakizu zer behar duen zure haurrak? Besotan hartzea, besterik ez. Kulunkatu egin behar duzu berriro, txikia zenean bezala bildu, babestu. Besotan hartzeko eskatzen dizun bakoitzean, hartu. Eta gaixotasunak desagertu egiten dira. Orain esaten ari naizen hau ez da guk asmatu-rikoa, sen ona da, hainbat leku eta garaitan mila aldiz egiaztatu dena. Baina zer gertatzen da? Lan sistemaren eta sistema kapitalista-ekoizlearen aurka doala. Hain zuzen, sistema hori pertsonen aurkakoa delako. Azken batean, zer egin dugu? Haurtzaindegiak eta teknologiak garatu ditugu



AZKEN HITZA

Lehorte

“Duela urte batzuk oso gutxi ziren bularra ematerik ez zuten emakumeak. Baita haurdun geratzerik ez zutenak ere. Gero eta gehiago dira arazoak eta horrek gauza bat argi uzten du: emakumeok amatasunerako gaitasuna galdu dugu. Emankortasuna galdu dugu. Emankorra izateak ala ez izateak, esnea izateak edo ez izateak amatasuna bizitzeko moduarekin, horrek sortzen dizkigun emozioekin du zerikusia. Nondik bizi dugu amatasuna? Emozioetatik ala exijentzia sozialetik?”.

emakumeok ere gizonak bezala bizi ahal izateko, produkzio sistema berberean kateatuta. Zergatik kabitu behar dugu denok eredu berberean eredu horrek, gainera, gaixotu egiten bagaitu? Baina emakumeok oraindik patriarkatuak ezarritako baloreekin ateratzen gara gizartera, eta gure umeak galtzaile ateratzen dira. Egiaztatuta dago: atxikimendu sendoko umeek askoz ere gutxiago erabiltzen dituzte osasun zerbitzuak.

Beraz, zein da ondorioa, sistemari ez zaiola pertsona osasuntsuz eta zoriontsuz osaturiko jendarterik komeni?

Hori da nire galdera. Ez dut beste erantzunik aurkitzen. Diskurtso hau oso marjinala da eta, zabaltzen ari den arren, ideia hauek gauzatu ahal izateko azpiegiturarik bermatzen ez badugu, lortzen dugun gauza bakarra gurasoak errudun sentiaraztea da. Haurrak era batera hezi nahi dituzten arren eguneroko martxak, sistemak ez die-lako zirrikiturik uzten. Errepresioaz ari gara berriro, errepresio postmodernoaz. Haurrei egiten diegun kalteaz ohartzten garen arren betiko

martxan jarraitzen dugu. Nola liteke? Gaur egun, hazkuntza mota hau praktikatu ahal izateko erabat alternatibo bilakatu beharra daukazu, eta paradoxa da, naturalena delako alternatiboa.

Aipaturiko guztiak aberatsen arazoak direla diote batzuek, okerrago biziko bagina ez geneukakeela halako arazorik.

Argi dago elikatzeko borrokan ari denak bi arazo dituela, gosea eta agian, guk lehen munduan bezala, depresioa. Hemen depresio gehiago dagoela? Bai, baina berriro diot, aldaketa estrukturalengatik. Ez da egia gosea baduzu depresioa joaten zaizula. Oinarritzko behar hori asetzeko indarra aterako duzu, baina depresioak hor jarraituko du. Gizarte tradizionalan, jendeak argi ikusten zuen zer zen zoriontsu izaten uzten ez ziona, egitura, errepresioa izan arren, argia baitzen. Baina gaur egun jende asko errudun sentitzen da zoriontsu ez izateagatik. Gehien entzuten dugun esaldia horixe da: “Dena daukat, zoriontsu izan behar nuke, baina ez nago ondo”. ■

• Lurdes Alonso •

«Izan dadila Lilatoia proba herrikoietan parte hartzeko tranpolina»

Lilaton korrika lasterketak 22. edizioa egingo du martxoaren 13an. Lurdes Alonso (Donostia, 1959) antolaketako laguntzailea da. Korrikalari amorratuak mila proben artean Lilatoiaren 21 edizioetan hartu du parte. Garbi dauka oraindik ere emakumeentzako baino ez den lasterketa beharrezkoa dela.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

LURDES ALONSOK UTZIA

MARTXOAREN 8A aitzakia hartuta, Donostian egiten den Lilaton izeneko emakumeentzako lasterketaren lehen edizioan 200 parte hartzaileetara ez ziren iritsi. Martxoaren 13an 2.000 korrikalari baino gehiago izango direla uste dute antolatzaileek. “Lehen Lilatoian 200 bat izango ginen eta kale ertzetatik begiratzen ziguten esanez bezala ‘hauek nondik atera dira?’”. 2.000 lagunek lasterketa antolatzea pisu handiko kontua da. Lasterkaldiaren antolatzaile asko hasierakoak dira eta horrek kezkatzen du Alonso: “Bi jubilatatu dauzkagu antolaketan. Horiek gabe ez dakit nola moldatuko ginatekeen hau dena antolatzeko. Gazteek helduek nahiko genuke, baina inork ez du horrelako lanik hartu nahi. Egia esan, militantzia iraganeko kontua da jada”.

Zergatik antolatu zenuten emakumeentzako baino ez zen lasterketa?

Emakume korrikalari taldetxo batek lasterketatan hartzen genuen parte. Probetan oso gutxi aritzen ginen eta kalean ia-ia bertsoak egiten zizkiguten. Arropa lixatzera, harrikoak egitera eta toki guztietara bidali gaituzte. Beraz, bi gauza geneuzkan gogoan: emakumeek lasterketa herrikoietan parte hartzea sustatzea, eta besterik gabe kirola egitera bultzatzea, kaleari beldurra galduz. Helburu nagusia emakumeak kirolari kateatzea zen, aire libreko kirolei. Gimnasioetan-eta aritzen ziren emakumeak, baina kalean ez hainbeste.



“Lasterketa herrikoirik ez da egiten, ez behintzat herriko hitzak esan nahi duen moduan. Jendeak gero eta entrenamendu gehiago egiten ditu, maila gero eta handiagoa da”.

Lilatoia prentsako Gizarte atalean

“Erakunde publikoekiko harremana oso ona da. Eusko Jaurlaritzako Ongizate Saila beti hor egon da, Donostiako Udala ere bai, eta Emakunde sortu zenetik, berdin. Orain arte ez bezala aurten hedabideek ere oihartzun handia eman digute. Agian iaz Donostiako Udalak saritu egin gintuelako izango da. Orain dela gutxi arte Lilaton lasterketa Gizarte atalean argitaratzen zuten”.

Iratxe Aranburu korrikalari zarauztarrak sarritan esan du emakumea kirola egiten bai baina batik bat lau hormen artean ari dela.

Beste kontu bat ere badago hor. Lasterketa herrikoirik ez da egiten, ez behintzat herriko hitzak esan nahi duen moduan. Jendeak gero eta entrenamendu gehiago egiten ditu, maila gero eta handiagoa da... Emakume askoren asmoa parte hartzea baino ez da eta lasterketatan atze-atzean geratzea gogorra egiten zaie. Beraz, batzuek, nola helburu bakarria parte hartzea eta ondo pasatzea duten, Lilatoia egiten dute eta kito.

Kaleari beldurra galtzea aipatu duzu.

Lotsa zeukan jendeak, gorputzgatik adibidez. “Besteek zer esango dute?” esaldia ere hor zegoen. Emakumea korrika egitera bakarrik joatea ez zen ohikoa.

Emakumeek baino parte hartzen ez zuten proben berri ba al zenuten?

Dublineko lasterketa bat ezagutzen genuen. 15.000 emakume hartzen zuten parte. Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundu ziguten, eta lau pezeta eta ilusio handiz antolatu genuen. Bertigoa ere handia geneukan, ez genekien jendeak nola

erantzungo zuen. 200era ez dut uste iritsi ginenik.

Nola erreakzionatu zuen jendeak?

Denetarik entzun behar izan genuen. Lasterketa emakume sektore jakin batentzako zela esan ziguten, besteak beste lesbiana eta feministentzat. Gizonek eta emakumeek zioten hori.

Gizonak kanpoan uztea diskriminazioa dela entzungo zenuten.

Eusko Jaurlaritzaren bidez Berdintasun Legea iritsi zen eta horrekin batera diskriminazio positiboaren kontua. Gizon askok esaten dizuten lehenengo gauza da lasterketa honek diru-laguntza publikoak dituela eta diskriminatu egiten dela. Bai, diskriminazioa da, baina diskriminazio positiboa. Lasterketa mixto ugari dago eta utz dezagun

hau. Gainera, badirudi ezaugarri horiek dituen bakarria dela hemen. Europan aldiz, aspalditik daude horrelako lasterketak. Izan dadila Lilatoia lasterketa mixtoetan parte hartzeko trapolina. Eta diru-laguntzari dagokionez, ez dut uste gaizki erabilitako dirua denik. Bestela, joan zaitez pistako eta kro-seko probatara eta begiratu zenbat emakume dabilten.

Gizonek bezala emakume batzuek ere errezeloz ikusiko dute, bada, lasterketa?

Gizonei gustatzen ez zaiena da lasterketa hau diru publikoz laguntzea. Askok esaten digute gustura hartuko luketela parte, emazteak parte hartzen duelako, adibidez. Baina 20.000 proba daukazu aukeratzeko!

Emakumeentzako baino ez den lasterketa delako parte hartzen ez duten emakumeak ere badira. Batzuek diote ez daukala zentzurik horrelako proba batek, mixtoa beharko

“Batzuen ustez ez dauka zentzurik proba honek, mixtoa beharko luke izan. Errealitatea ikusi besterik ez duzu, ordea! Konformatuko nintzateke Lilatoiko 2.000 emakumeetatik ehunek Behobia egingo balute”



lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Lilaton lasterketa

Martxoaren 13koa Donostiako Lilaton taldeak antolatuko duen 22. edizioa izango da. 5 kilometroko ibilbidea hiriko erdiguneko kaleetan osatzen da. Lehenengo edizioan 200 partaide baino gutxiago izan baziren aurtengorako 2.300 elastiko prestatu dituzte. Emakumeentzako baino ez den lasterketaren izaera ezagutu nahi baduzu www.lilaton.com-en aurkituko duzu bideo interesgarria.

lukeela izan. Errealitatea ikusi besterik ez duzu, ordea! Konformatuko nintzateke Lilatoian arituko diren 2.000 emakume horietatik ehunek Behobia [Behobia-Donostia 20 kilometroko lasterketa] egingo balute, edo hogei emakume astean behin geratuko balira lagunekin korrika egitera joateko. Emakume batzuek korrika egiteari utzi zioten haurrak izandakoan, eta orain, Lilatoian aitzakian, berriz hasi dira kirola egiten.

Berdintasun Legea horretarako dago, oraindik ez gaude maila berean emakumeak eta gizonak. Eta Gipuzkoan besteekin alderatuz [Hegoaldeko beste probintziak] askoz hobeto gaude. Gipuzkoarrak haien aldean ausartak baino ausartagoak gara!

Lilatoia tranpolin izatea gustatuko litzaizukeela esan duzu. Alabaina, Lilatoian festa giroa da nagusi eta gizonak gehiengo handia diren lasterketa herrikoietan lehia gailentzen da.

Gizonak lehiakorrangoak direla esaten da... nik ez dut sinesten. Baina bai, egia da festa giroan egiten dela Lilatoia. Dena dela, proba honek protagonista emakumea da. Lasterketa mixtoetan inoiz ez zara probako garailea izango, zure kategorikoa baizik.

Lasterketa herrikoiei dagokienez, horrelako bakarra dago, Behobia, eta beti ere parte hartzaile kopuruagatik. Duela hama-

"Frantziara bazoaz errespetua erabatekoa da. Maila guztietako emakumeek hartzen dute parte, eta gizonak ere bai. Itxura kontuetan lotsa sentsazio askoz txikiagoa dute hango emakumeek"

zazpi urte emakumez osatutako Easotarrak izeneko korrika taldea sortu genuen. Bada, emakume horietako batzuek Behobian parte hartzeari utzi zioten, azkenak izaten zirelako eta autobusa [proba bukaeran doa erretiratuak jasotzen] klaxona joaz zeramatelako. Argi diot, kilometroa sei minutuan ibiltzen denari ez diot gomendatzen lasterketa herrikoietan parte hartzea. Badakit nire teilatuari harriak botatzen ari naizela. Aldiz, bestaldera bazoaz [Frantziara], errespetua erabatekoa da.

Maila guztietako emakumeek hartzen dute parte, eta gizonak ere bai. Itxura kontuetan lotsa sentsazio askoz txikiagoa dute hango emakumeek.

Beraz, hemen kirola egiteaz dugun ikuskerak ez du asko laguntzen, batik bat emakumeen parte hartzea bultzatzeko.

Donostiako maratoin lagun bati lagundu nion eta biribilgune batean, gu pasa aurretik, lasterketarako errepidean jartzen diren zintak kentzen hasi ziren. Esan egin behar izan genien gu pasa arte ez kentzeko. Emakume hura maratonia 4 ordu eta 20-25 minutuan egitera zihoan. Unibertsitateko campusean ez genekien nondik joan behar genuen.

Hala ere, ni saiatzen naiz emakumeak animatzen, nahiz eta parte hartzeko uzkur diren. ■

Hurrengoak gu

“Behin zure hizkuntza proiektu sendo batean sartuz gero, hurrena datorrenak, aurrekoa zein hizkuntzataraz itzuli duten begiratu du, eta naturaltasun osoz sartuko du zurea. Horregatik, kontua oso sinplea da: edo zerrendan zaude, edo ez zaude. Horregatik, ahal den ahalegin guztia egin behar da bertan egoteko”. Vilaweb webguneko zuzendari Vicent Partalen hitzek argi erakusten dute zergatik abiatu den sarean Twitter euskaratzeko kanpaina.

LANDER ARBELAITSZ

INORK GUTXIK iragarriko zuen horrenbeste atxikimendu lortuko zituela Twitter euskaratzeko sarean hasitako kanpainak astebetean. Artikulu honen sinatzaileak ARGIAko bere blogean abiatutako kanpainak babes zabala jaso du euskal internauten artean, eta AEBetako enpresaren zuzendari nagusiari nabarmendutako mezu gisa iristen zaio “*We would like to translate Twitter to Basque*” esaldia erabiltzaile berri batek kanpainan klik egiten duen bakoitzean. Astebetean 1.450 aldiz heldu zaio aldarria.

Egun Twitter zazpi hizkuntzatan dago erabilgai: ingelesez, gaztelaraz, korearrez, japonieraz, alemanez, frantsesez eta italieraz. Hurrenak errusiera, indonesiera, turkiera eta katalana izango direla jakinarazi berri dute; azkena, Albert Cuesta kataluniarrak hasitako kanpainari esker. Nazioarteko zerbitzu arrakastatsua beren hizkuntzan horren azkar jaretzea garaipen handia izan da kataluniarrentzat. Urtebetean 3.500 atxikimendu lortu dituzte kausa honen alde. Teknologia berrietan presentzia bermatzeari garrantzi handia ematen diete kataluniarrek, eta euren lorpenik handiena .cat domeinuaren lorpena izan da. Bide horren jarraipena da azken hau.

Kanpainaren bultzatzaileek kataluniarrek egindako berbera abiatu dute eta kopuru berbera heltzea jarri dute helburu. Euskal Herriko mugetatik harago ezagunak diren erabiltzaile euskaldunen babesa izan du kanpainak hasieratik, eta adibidez, Xabi Alonso, Patxi Lopez edo Fermin Muguruzak kanpainaren berri eman dute hainbat hizkuntzatan. Nabarmenezkoa da, Real Madrileko futbolari tolosarra 360.000 pertsona baino gehiagok jarraitzen dutela, gainontzeko euskaldun guztiak batera kontatuta baino milaka batzuk gehiago.

Euskara hizkuntza modernoa dela erakutsi dugu jadanik. Google, Wordpress, Windows, Firefox eta Facebook euskaraz ditugu, beste askoren artean. Twitterren sartzeari garaipena litzateke guretzat ere.

2006. urtean sortu zen Twitter, eta Facebookekin batera, sare sozialen sinboloa da. Oraindik ere. Facebook nagusi den arren, Twitter pixkana indartzen joan da. Egun, Wikipediaren arabera, 190 milioi erabiltzaile ditu mundu osoan eta egunean 65 milioi mezu bidaltzen dira zerbitzu hau erabiliz. ■

Kanpaina babesteko: <http://act.ly/35s>



Udaletako euskara-zerbitzuen III. topaketak

Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
2011ko apirilaren 7an eta 8an

Gaia: “Zer da euskara euskaraz ez dakitenentzat? Haiek euskarara hurbiltzeko, zer eta nola egin daiteke udaletatik?”

matrikulazioak online martxoaren 24ra bitartean - **PLAZA MUGATUAK**
www.udaltop.com

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta

MOROK gARA behelaino ARTEAN ?

HAMMANETIK
ATERATZEN ARI
dena... ez DA
LOHIZUNeko
ESPEKULATzailea ?

HURA
BER-BERA !

KABALAK !
KABALAK'
ez
BERTZEAK
!!!

ERRESPETU
amiño BAT,
MAM ...



Nuklearrak? Bai mesedez!

A

rrazoi duzu, José Luis, iritzi emaile publiko izatea ez dago ongi ikusia. Ez dutelako

MARC CAMPÀ


galdetzen CIS, Eusko

Pacometro, eta halako inkestetan, zeren galdetuko balute apustu egingo nuke politikariek egongo ginatekeela borrokan gutxien baloratuak dauden ofizioen (hitz egiteko modu bat da) zuloan egoteko. Hori bai, egia da orobat iritzi emaileen artean ezberdintasunak egon badaudela. Neronen ibilbidea gainbeheraren erakusgarri aparta da, urrutira joan gabe. Azken boladan jendeak egunkarietako kritika saila kontaktusailarekin nahasten badu ere, oraindik halako pedigreea mantentzen du literatur kritikagintzak, eta iritzi emaileen artean errespetagarrienetakoa izaten jarraitzen du. Ustez irizpideak dituzu, gaian espezialista-edo zara, ikasia, irakurria, eta abar. Bada, hortik zutabegintzara igaro naiz, nahiz eta zutabegintza molde ohoregarri batera igaro naizen, hori bai —ez al zaizkit Mikel Asurmendi eta enparauak haserretuko—. Nolanahi dela, neure buruari galdetzen diot hurrengo zer izango ote den: tertuliano politiko edo *think tank* horietako bateko kide? Ez dut pentsatu ere egin nahi.

Dena den, iruditzen zait askotan jendeak gehiegi eskatzen diola iritzi emaileari. Izan ere, ikusten duzu balizko adituak nola ibiltzen diren, eta esango nuke gai bati buruz ezer ez jakin eta ezer ez ulertzea dela iritzi batekin asmatzeko modurik probableena. Ikus ezazue bestela Rodrigo Rato Espainiako ekonomiaren salbatzaile handia, estadista bikaina, ideologiak gaintuz kudeatzaile eraginkorretan eraginkorrena. Berrikitan, bere azkeneko enpresak, Nazioarteko Diru Funtsak, itzulinguruka ibili gabe, ezgai huts gisa izendatu du. Espezialisten aldean hobe bertsolariaren eredua; gaiak jartzen



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padroin

dizkiote bata bestearen atzetik eta denetarako du erantzuna, eta ez hori bakarrik, denetarako du erantzun bat eta bakarra: Gora Euskadi Askatuta! (bis)

Azkeneko komentario honekin eta artikularen izenburuarekin *desatsegitate* espontzialki biderkatuko zaizkidala susmatzen dudanez,

argitu dezadan azken honen zergatia bederen.

Kontua da duela gutxi ezker abertzaleko militante beterano bati entzun niola ez zegoela nuklearren aurka; alde ez, zehazten zuen, baina kontra-kontra ezta ere. Hasieran azken aurreko *batasunarequisitos* horietako bat izango zela pentsatu nuen; ez zela nahikoa indarkeria baztertzearekin, ez zela aski ETAre indarkeria baztertzearekin, ezta ere bortxa babesten duten militanteak purgatu eta Siberiara bidaltzearekin, keinu gehiago behar zirela. Inork pentsa zezakeen, hortaz, integrazioaren aldeko aldaketa zela nuklearrak begi onez-edo ikustearen hau. Baina orduan ohartu nintzen ez zuela horrekin zerikusirik. Kontua ez dela energia nuklearra sortzea, gauza horiek bigarren mailako txikikeriak direla, baizik eta bonba atomikoa eraikitzea. Independentziaren aldeko bidea ez dela ez borroka armatu eragingabea, ezta bide demokratiko belaxka eta xaloa, potentzia nuklear bilakatzea baino. Euskal Herriak bonba atomikoa lortzen duenean izango dela benetan aintzat hartua: nuklearra-da-bide-ba-karra!

Eta abertzaleen zatiketaz kezkatuta zaudeten lasaitasunerako, ez nuke berehalakoan esango EAJ ideien kontra egongo litzatekeenik. Nazio handiak egitasmo handiek egiten dituztela defendatu izan baitute beti jeltzaileek: Euskoak, Ertzaintza, Athletic Club, Petronor, Euskaltel, Euskal Air... Zer egitasmo handi eta nazioanalago bonba nuklearra baino?

Post Scriptum: A. A., I. R. eta L. L. Z-ri zor. ■



Kontua ez da energia nuklearra sortzea, gauza horiek bigarren mailako txikikeriak dira, baizik eta bonba atomikoa eraikitzea. Independentziaren aldeko bidea ez da ez borroka armatu eragingabea, ezta bide demokratiko belaxka eta xaloa, potentzia nuklear bilakatzea baino



Iñaki Odriozola

IRAKASLEA

Burgesiaren diktadura

Gazte nintzela, jada aspaldi, jendar-tearen antolakuntzari buruzko lehenengo irakurketak eta eztabaidak egiten hasi ginenean, gogoratzen dut Xabier Arzalluz, orduan PNVko buru, zera esaten, ezkerreko ideiak “kanpotik” etorritakoak zirela, eta orduko ETaren inguruan geundenak autoritarioak ginela, proletalgoaren diktadura ezarri nahi genuelako, hain zuzen ere.

Jeltzalearen lehenengo baieztapenak harritu egiten ninduen; ez nion zentzu gehiegi hartzen, ez bazen pentsatzeko, agian, Arzalluzek uste izango zukeela kapitalismoa Euskal Herrian sortua zela, jainkoa eta lege zaharrekin batera, paleolitiko garaian edo. Baina, batez ere bigarren esaldiak mintzen ninduen bereziki.

Jelburuak esandakoak zera adierazten zuen, edota ez zekiela marxismoari buruz, eskuineko demokristaua baitzen, eta kapitalismoaren aldeko sutsua, beraz; edo nahita botatako esaldia zela, euskal jendeak diktadura hitzari zion beldurra erabiliz, ezkertzaileen aurka egiteko.

30 urte eta gero, lehen munduan, mundu osoko “Jeltzaleek” bultzatutako kapitalismo horren krisia bizitzea egokitu zaigunean, konturatzen hasi gara, berriz ere, hemen nork agintzen duen benetan. Horregatik gogora etorri zaizkit hitz haiek.

Espainiako Estatuan sozialdemokratek –beti eskuinaren lan zikina egitea egokitzen



DANI BLANCO

baitzaie– hartu dituzten erabakiak ikusi eta gero, ongizate estatuaren ezabapena sinatu dutenean, gogoratu dugu, hemen European ere, fatxada demokratiko homologatuen azpian, ordenak ematen –diktatzen– ditue-na, garbiki, burgesia dela.

Kapitalak agintzen du, eta Marxek *Manifestuan* zioen bezala, “Gobernu modernoak

burges klasearen arazo orokorren administrazio-batzordea besterik ez dela” argi agertzen ari zaigu, gu gerrikoak estutzen ari garen bitartean, korporazio handiek milaka milioika euroko etekinak baitaузkate, eta zerbitzu publikoak murriztearekin batera, pribatuak hazten ikusten baititugu.

Proletalgoaren diktadurak esan nahi zuena, zehazki, zera zen: aginduak, ekonomia eremuko aginduak, langileen esku geldituko zirela, burgesiaren esku egon beharrean. Eta irizpide bezala, jabego pribatua publikoaren menpe geldituko zela, denborarekin desgertzen joan arte.

Eta zer esango dizuet bada, nik aukeratzekotan, nahiago dut langile jendearen diktadura, neu barne nagoelako, gehiengoarekin, orain arteko burgesiaren –elite aberats, zapaltzaile, minoritarioaren– diktadura baino. Haren gainetik, egitura politiko demokratikoa, parte-hartzailea, eta herritarrengandik hurbilagoa ere antolatze-ko aukera izango dugu, orduan. Zeren beldur? ■

Nik aukeratzekotan, nahiago dut

langile jendearen diktadura, neu

barne nagoelako, gehiengoarekin,

orain arteko burgesiaren

–elite aberats, zapaltzaile,

minoritarioaren–

diktadura baino



David Anant

EUSKARA TEKNIKARIA

Emozioen hizkuntza



ala esan omen zaio musikari, berriki jakin izan dudanez. Zinez definizio ederra, eta zuzena. Izan ere, hainbatetan hitzek baino askoz ere hobeki islatzen eta jasotzen du

musika pasarte jakin batek gure baitako emozio zehatz bat, dela euforia, dela tristura, dela amorrua...

Maiz gertatu baitzait niri behintzat, oilo pikorra eragiten didan kanta bat edo kanta baten zati bat entzun, eta sentitzea horixe bera dela hitzez adierazi nahi baina adierazi ezin nuena. Doinu horrek esan nahi duena ulertzen eta sentitzen dudala, alegia, eta emozio hori inori azaldu beharko banio akaso hitzez saiatu beharrean musika hori erabiliko nukeela.

Eta musika emozioen hizkuntza dela onartuz gero, ez da jauzi handiegia egin behar beste ondorio bat ateratzeko, euskalgintzaren gure mundu txiki honetara ekartzeko. Honatx: gure diskurtsoari, gure komunikazioari, akaso, musika pixka bat ongi etorriko litzaioke.

Baita hitzez hitzeko zentzuan ere, agian; hau da, gure askotariko komunikazio ekintzetan ohiko moduan musika-doinuak erantsiz.



KARLOS CORBELLA



Musika emozioen hizkuntza

dela onartuz gero, ez da jauzi

handiegia egin behar beste ondorio

bat ateratzeko, euskalgintzaren gure

mundu txiki honetara ekartzeko.

Honatx: gure diskurtsoari,

gure komunikazioari, akaso, musika

pixka bat ongi etorriko litzaioke



Baina batez ere beste zentzu batean: gure esanei musikaltasuna erantsiz. Ez hainbeste ideiei eta edukiei dagokionez, baina hitzak hautatzen ditugunean, eta hitz-kateak sortzen eta lotzen ditugunean, hizkera musikalaria, “kitzikagarriagoa” bila genezake. Ederren bilatze hutsagatik? Ez, noski. Emozioak pizteko helburuarekin. Egia baldin bada emozioek hainbesteko

eragina dutela gure eguneroko erabakietan, baita hizkuntzazko erabakietan ere, aldaba hori ere jotzen saiatu beharko dugu, besteak beste, eta hitzen musikaltasunak berak duen magia eta indarra baliatu.

Ideiei eta edukiei deus ere kendu gabe, jakina, deus esaten ez duten hitz ederrek nekez eragin baitezaketete funtsa eta iraupena izanzen duen emoziorik.

Komunikazioa eta diskurtsoa ez dira izerdirik egin gabe gure helburu eta egiteko guztiak eskura jarriko dizkiguten formula magikoak, baina lagungarri eta are ezinbesteko izanzen zaizkigu ziu-rrenik. Bada, eraginkorragoa izanzen da nolabaiteko musika izanzen duen diskurtsoa —ez beti eta nahitaez belarriak goxatzekoa—, diskurtso lehor eta zozoa baino. ■

TXANDAN

Castillo Suarez



Esadazu... zer afaldu duzun. Aspaldi ikusten ez nuen ikas-kide batekin elkartu nintzen lehengoan. Nafarroako herri txiki batean ari da lanean, maisu. Errepidea

bukatzen den herri batean. Hiriburutik urruti. Eskola txikia dela eta kontentu dagoela esan zidan. Eskolako haur asko baserri auzoetan bizi direnez, jantoki zerbitzua eskaintzen dute eskolan eta bertan bazkaltzen du, gainontzeko irakasleekin eta haurrekin batera. Harritua dagoela esan zidan. Harritua ikaragarriko arazoak dituztelako jantokiko begiraleek haurrei hainbat gauza jatera emateko. Barazkiak, esate baterako. Gero eta kezka-

Esadazu...

rriagoa denez afera, haurrei zer afaltzen duten galdetu diete. *Pizxa* erantzun dute batzuek; *ogitartekoa*, beste batzuek; *sanjakoboa* edota *patata frijituak*, bakarren batek. Haur horiek —geografikoki, bederen— guztiak gune komertzial handietatik zein janari azkarreko jate-txeetatik urruti bizi dira, baina dieta mota hori azkeneko baserriraino iritsi da. Gurasoeekin bilera egin dute eta gero eta denbora gutxiago dutela otorduak prestatzeko argudiatu dute. “Ez dakit denbora kontua den bakarrik —esan diot— opil industrialek zein frijituek badute zerbait listua egiten jartzen dutena gure burmuina”. Kafetegian sartu garenean gozo-bonba bana eskatu dugu. ■

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Munduaren orpoa

Inoizko eta betiko herrian, gauzak oker: urak ez ziren iturrietara heltzen, katuek ez zituzten xoko-bazterrak miatzen. Eta gaiztoena zen gerra zutela gizonek denborapasa, kalean nahiz etxean. Arduraturik, lau haizeetako bidegurutzean elkartu ziren bertako andreak.

Umeak eskolan uztetik zetorren Urkia, Zanburutik behera. San Adriango tunela zeharkatuta, aita erresidentzian bisitatzetik, Sandia. Gizonarentzako bazkaria prestatu eta *tupperware* batean gorde, hozkailu berriaren faktura ordaindu, alaba-arentzako mediku-kontsultaren ordua eskatu, eta produktu bio-ekologikoen otzara enkargatzetik, Berendia. Pindo-ko mendi urrunetatik heldu zen Lisistrata, Grezian guduakugarretan utzita.

JURAMENTUA. Zahar nahiz gazte, garai zein mozkote..., zuriak, beltzak, ilehoriak, beltzaranak..., heterossexualak, homossexualak, bise-
xualak, transexualak, sexu-joera deskubritu gabekoak..., soldatapean lanean zihardutenak, halakorik ez zutenak, alargun-saria borrokatzen ari zirenak..., senarrek jipoituak, semeek lapurtuak, alabek errefusatuak, apaizek sodomian hartuak...; emakume-mundu oso bat bildu zen lau puntu kardinalen bidegurutze hartara.

Luze aritu ziren emakumeak, auzi eta eleta bizian. Kexa nagusia zen bigarren mailakotzat hartzen zutela gizonek emakumea: azken-putz. Zazpi galtzagorri bezain kexu zeuden denak: zer egin eta zer ez egin, zer komeri eta zer ez, nola irauli egoera. Zelan goldatu patriarkatuaren eskuak ereiten zituen lurrak.

– Gu hilda ere, astoak errotara! –etsitako batek.

Ez zuela zertan. Mundua alda zitekeela. Hobetu. Justuago egin. Berdintasunezko. Denentzako berdina, nori berea emanda.



INIGO AZKONA

Ez diot atseginik emango borondatez,
eta bortxaz hartzen banau ez natzaie
haren mugimenduei egokituko...
ez dizkiot oinak sabairaino jasoko;
ez eta lau hankatara jarriko,
lehoi-eme baten gisara



irudia:
Antton Olariaga

– Dios! Barrabiletatik harrapatu beharko geniken horietakoren bat...

“Barrabiletatik baino, luzeago duten horretatik harrapatuko ditinagu horiek guztiak”, esan zuen Lisistrata. Eta, gizonak behingoagatik arrastoan sartzeko, honako juramentu hau egitea proposatu zien:

– Ez da ez senar ez amoranterik hurbilduko zaidanik, bat-batean zakila zut hartuta. Etxean, zezenik gabe biziko naiz. Ez diot atseginik emango borondatez, eta bortxaz hartzen banau ez natzaie haren mugimenduei egokituko... ez dizkiot oinak sabairaino jasoko; ez eta lau hankatara jarriko, lehoi-eme baten gisara.

ETA HAU HOLA BAZAN. Urtebetez bizi izan ziren emakumeak zezenik gabe, ahari eta zaldirik gabe. Berdintasuna nahi zuten andreek. Aintzakotzat hartuak izatea. Bakea, etxean nahiz lanean. Umiliatuak ez izatea. Ez joak, ezta hilak izatea ere. Horregatik juramentua eta greba.

Protesta hura zela eta, urtebetez iraun zuen ortziak ilun eta goibel. Urtebetez egon ziren katuak miau esan barik, txoriak hegaldatu gabe. Elkartasunez.

Munduak behea joko zuela mehatxatu zuen apaizak. Baina, bakarrik geratu zen bere kritika eta oihuekin, sotana beltza lotu ezinik.

Gerrak ez zuela zentzurik, hala esan zuen alkateak. Jubilatu nahi zuela, jeneralak. Gezurrik ez zuela kontatuko, kazetariak. Nebak, ez zuela irainduko arreba. Senarrak, garbigailua jartzen ikasiko zuela. Lapur-
rak, itzuliko zituela pitxiak.

Eta, bat-batean, txori bat hegaldatu zen, sasietatik ortzira jauzi eginda. Gordelekuetatik atera ziren katuak. Eguzkia ikusi zuten inoizko eta betiko herri hartan. Zanburura itzuli zen Urkia. Hermuara, Sandia. Fakturak jaurti zituen surtara Berendiak. Korinto hartu zuen begietan Lisistratak. ■

BERTSO BERRIAK

Xabier Paga

G kontua



I

Genuinoa, bat-batekoa,
sortzen dutena bi zirrik,
gene “razioz” generazio
mantendu dena bizirik.
Jakinekoa eta jeniala
bereizten ditu Andonik,
baina bertsoa “degeneratzen”
hasia sumatzen dut nik:
**Bertsolaritzak genitalekin
ez ei du zerikusirik,**
azken aldian, aldiz, dena da
generoa, ez besterik.

II

Emakumeek sufritu zuten
matxismoaren geriza
seiko saioan bost morroirekin
bakarra zenean missa;
gaur egun, aldiz, ganbaran dago
orduko argazki grisa
eta oholtzan jarduten dugu
Apolo zein Artemisa.
Zer inporta du hanken artean
izan zozo edo ziza,
generoa ez da zein komunetan
egin behar duzun txiza.

III

Emakumeen umore motez
hasita gaude hizketan
komiko nola izan litezkeen
arte eszenikoetan.
Nik etsenpluak aurkitu ditut
**Beterriko Txapelketan,
Kabaretean, neskaz beteta
dauden bertso-eskoletan...**
eta uste dut, oinarriturik
beste batzuen hitzetan,
pomada jartzen ari garela
itxitako zaurietan.

IV

Nahiz eurak izan gaia bertsotan
gizarteratzen lehenak,
genero kontu hauek ez dira
soilik emakumeenak.
Ezetx aurkitu bi “ardo-gizon”
zapora bera dutenak
nahiz kristalezko gorputz arretan
etortzen diren den-denak;
ziur ozpindu izan direla
inoiz batzuen barrenak
gorputzez arrak izatearren
kexatu ezin direnak.

V

Jon Sarasuak egin berri du
sekulako eskusiba
BECeko azken final handiko
bertsolariei begira:
**“bertso gehienak euren artean
truka litezke”** Mobida 8-O!!!
Denek ez dute genero bera
afaritik jaialdira,
baina **hamalau mila pertsona**
dauzkazunean begira...
tira, agian, genero batzuk
generalizatzen dira...

VI

Kontrolik gabe biratu arren
gogoetaren noriak,
bada garaia praktikan jartzen
hasteko **queer teoriak.**
1) Denak ezberdin eta berdintsu
egin gintuen zoriak.
2) Generoaren zauririk ez du
hurrengo belaunaldiak.
Ahantz ditzagun iraganeko
damuak eta fobiak
beste zentzu bat izan ez dezan
genero indarkeriak.

Gorritz nabarmendutako hitzek lotura bana dute. Klikatzeko sartu www.argia.com-en.

DOINUA: “Abokatuak esan berri dit”.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaira

Fermin Muguruza

«Uneotan Al Jazeera English da mediorik interesgarriena»

Egipton hasi eta Tunisia, Maroko, Libano, Siria, Kuwait, Bahrein, Yemen eta Sudan bisitatu ditu Muguruzak urtebetean, herrialde horietako mapa musikala egiteko, 80 musikari baino gehiago elkarriketatu. Next Music Station du izena Al Jazeera-rentzat egindako proiektuak eta martxoaren 10etik aurrera emango dute Qatar-eko telebista katearen Documentary Channel-en.

MIKEL GARCIA

Hasieran 13 atal izan behar zituzten dokumentalek, baina Aljeria kanpoan utzi behar izan duzue azkenean, eta beste leku batzuetan ere izan duzue errodatzeko arazorik.

Bai, hori amorrua Aljeriarena. Sekulako gogoanuen han bizi diren musikariekin elkartzeko, ondo ezagutzen dut herria –gerra zibila bukatu bezain laster han izan nintzen– eta musikari pila ezagutzen dut, lagun minak; gainera inbertsio handia egin genuen (denboran, baliabideetan eta ekonomikoki). Baina azken unean ez ziguten baimenik eman eta ezinegona, beldurra eragin zigun hurrengo herrialdeetan ere ez ote genituen arazoak izango. Horregatik, hasieratik tentsio izugarritzko errodateak izan dira. Marokon hiru egunez material guztia bahituta izan zuten Tangerreko aireportuan; Bahreinen berdin eta klandestinoki aritu behar izan genuen; Sirian sekulako arazoak izan genituen sartzeko eta influentziak erabili behar izan genituen, Hezbolarekin hitz eginez eta guzti...

Itzuli eta altxamenduak nagusi herrialde arabiarretan.

Bigarren irakurketa daukate orain dokumentalek eta dokumentu bezala geratuko dira historiako: herrialde hauen momentu zehatz bateko mapa musikala dira, hortik aurrera dena aldatu da. Orain gertatutakoa ikusita, musikaren bidez kontatzen zutena horren iragarpena zen. Egipton uste genuen altxamendua egongo zela baina odol jarioa izugarria izango zela. Aldiz, kostu humanoa handia izan da, baina izan zitekeenaren aldean deus ez. Han bazegoen esamolde bat, Barne ministroak botatakoa duela zenbait urte eta asko entzuten zena: “80 milioi gara, 5 milioi gutxiago baldin bagara ez

da deus gertatzen”... Tortura sistematikoa zegoen edozein txorakeriarengatik, izugarritzko prepotentzia poliziala. Sekulako anabasa zegoen eta oraindik lan asko dago egiteko, ustelkeria oso errotuta dagoelako, baina ze poza ematen duen diktadore bat botatzen ikusteak!

Dena den, badira elementu batzuk hemengo medioetan oso gutxi ateratzen direnak, ez delako interesatzen: neoliberalismoaren kontrako borrokak direla, kapitalismoaren kontra; eta matxinada langileriak oso ondo ezagutzen duen tresnen bidez egin dutela: greba orokorra, baina dena gelditzen duen greba orokorra.

Kairoko jazz jaialdian.



Suezeko kanala gelditu zutenean, eta Kairo, eta herria gelditu zutenean, hor hasi ziren arazoak.

Ez da hemen bezala orduan, zerbitzu minimoen eraginpean...

Pikutara zerbitzu minimoak! Han ogia-eta eramenen zuten, baina gainontzeko guztia geldirik. Gaddafiri entzuten badiogu ere, zer esaten ari da? Mundu guztia lanera itzultzeko. Eta hori kontatzeak esan nahi du herriak boterea daukala, baina hemen anestesiatuta gaude.

Hain juxtu, 2008an Garbiñe Ubedak ARGIArako elkarrizketatu zintuenean azalera ondorengo titularra atera genuen: "Mundu osoan gerra usaina dago, auzolana da aukera bakarra". Auzolan hori izan da matxinaden arrakasta?

Dudarik gabe. Bai matxinadetan eta bai egin berri dudan lanean, kulturen arteko solasaldia izan delako. Bidaia hau egiten ari ginenean, Europako mandatariek ondo markatu zituzten beraien diskurtsoaren lerroak: multikulturalismoaren aurka agertu ziren Merkel, Cameron, Sarkozy. Eta horren aurrean gertatzen zaiguna auzolana da.

Auzolan hori falta zaigu Mendebaldean?

Bai, oraindik *shock*pean gaude zenbait herrialdetan, oso gogorra izan delako globalizazioaren kolpea, eta herrestan eraman gaitu. Komunikazio aldetik sekulako hutsuneak daude, birtualki 5.000 lagun dituzula iruditu arren harreman eta elkartzasun aldetik asko galdu delako. Hemen dugun sindikatu nagusia da nire ipurdia eta ni. Bide berriak jorratu behar ditugu.

Gertatzen ari den guztiarekin, herrialde arabiarrez dugun irudia aldatu dela uste duzu?

Iruditzen zait ezetz, Al Jazeera jarraitzen duen jendeak matxinadak baino ez dituelako ikusten, kanal informatiboak espazio gutxi uzten dio kulturari, eta nire ustez kultura da herriak ezagutzeko lanabesa. Hala ere, oso interesgarria da, Al Jazeera esker lehen eskutik ari garelako aurpegiak ikusten.

Kultura bada tresna, dokumental hauek zubilana dira?

Bai, konbentzitututa nago. Hasteko, jendeak ez dakielako zein musika egiten den herrialde hauetan, ezta musika egiten denik ere. Eta ikusteko, baita ere, nola adierazten dituzten gauzak, keinuak, aurpegiak, ahotsa... Balio handiko dokumentalak dira, erakusten duten kultura eta paisaiagatik, eta balio politikoagatik. Multikulturalismoa ez da bakarrik europarrok esaten dugunean beste kulturekin elkartzea; multikulturalismoa da Egiptok, Sudanek erakusten digutena, biltzen direlako leku guztietako kulturak eta pertsonak. Askok dugu ikasteko.

Domino efektua baino gehiago

"Zer gertatu zen 68an? Ez zen berez etorri, aurreko urteetan jada zerbaite pil-pilean zegoen, ura irakiten. Eta 68an egin zuen eztanda. Eta orain berdin. Mediterraneora iritsi da, Greziaz ahaztu gara, baina Grezian ere sekulako grebak egiten ari dira egunotan, eta estaltzen saiatzen dira, Greziaz hitz egitea delako gure ekonomia kapitalistaz hitz egitea. Ez da domino efektua, baizik ezinegon bat zegoela, eta leku batean lehertu denean, ikusi dutenean nola egiten den eta herria kapaz izan dela hori egiteko, beste lekuetan ere eman da. Altxamendu armatua izan balitz, ez luke arrakastarik izango, gobernuarentzat errazagoa delako armei armekin aurre egitea, baina herria horrela altxatzen denean, sekulako lezioa da".

Zein egitura jarraitzen dute dokumentalek?

Eredua *Checkpoint Rock* filma izan da: soinu mapa bat marraztea, musika tradizioaletik azken joeretaraino. Bidaia baten bidez askotan (Marokon Tangerretik Marrakexeraino; Egipton Nilo ibaiaren inguruan...). Leku bakoitzean musikari batekin elkartzen gara eta berak irudikatzen du herri horretan gertatzen dena.

Salaketa mezua zuen Checkpoint-ek, baina aldi berean erakusten du herri bizia dela palestinarra. Hori aurkituko dugu oraingoan ere?

Bai, hala da. Palestinan ohituta gauden irudiak egon bazeudelako, baina baita bestelakoak ere, ez genuen probokatu, mikroa piztu baino ez genuen egin, eta adierazten utzi. Orain ere hala egin dugu eta diskurtso oso interesgarriak topatu ditugu, poetikoak batzuetan, zuzenagoak... Hitz bortitzak erabiltzen zituen rap talde bat Egipton, Tunisiako malouf estiloan herriaren sufrimendua islatu nahi zuen musikaria... Musikak bestelako dimentsioa hartzen du.

Bahman Ghobadiren No one knows about Persian Cats filmak Irango musika undergrounda du ardatz, eta erregimenaren debekuak medio, musika egitea transgresioa dela islatzen du. Halakorik ikusi duzu?

Adibidez, emakume asko ageri dira dokumental hauetan, eta beraien janzkera jada transgresio bat da, baita oholatza gainera atera eta kantatzeko duten jarrera... Bestalde, arazoak dituzte hainbat herrialdetan: Libanon momentu honetan sekulako leherketa musikala dago, denetariko adierazpideak dituzu (musika tradizionala, esperimentala, rock, hip hop, hardcore, inprobisatua...); ordea, Golkon atzerapauso handiak ikusi ditugu, zuzeneko kontzerturik ere ezin da antolatu Kuwaiten eta integrismoak terreno asko irabazi du. Tunisian oso modu metaforikoan erabiltzen dituzte hitzak, zentsurari aurre egiteko; Marokon debekatua dago Sahara hitza erabiltzea...

Hizkuntza aldarrikatzeko bide gisa ere ba al dute musika?

Dudarik gabe. Gehienek arabieraz egiten dute eta garrantzi handia ematen diote. Gainera, herrialde bakoitzeko arabierak ez du zerikusirik besteekin. Eta Libanon adibidez azpimarratzen zuten arabieraz kantatzearen beharra, ingelesa eta frantsesa indarra hartzen ari direlako.

Ze jarrera behar da horrelako lan bat egiteko?

Leku batera ailegatu eta herri horretan sartzen saiatzea, murgiltzea, herriarekin harremana hartzea. Jendearekin egon, benetan busti herri horretako errealitatearekin, ez hotelean gertatzea. Horrela erortzen zaizkizu aurreiritzi pila bat. Musikariok hizkuntza propioa daukagu,



berehala konektatzen dugu, erreferentzi asko elkarbanatzen ditugu, eta abantaila dut alde horretatik. Gainera, bidaiatzeko lan talde oso ona izan dut, gerrillakoa, ni neu gerrillakoa naizelako: Natalia de Ancos, Jordi Abusada, Angel Katarain (Kortaturen garaitik nirekin) eta Atxus Acosta, Vicepresidentes-ekoa.

Musikari, kazetari eta zinegile aritu zara dokumentalotan.

Oinarria musika da, musikaritzat jotzen dut nire burua. Baina musikarekin lotuta dauden gauza guztiekin egin dut lan. Musikari gisa autogestioa landu dut hasieratik bukaerara, Egin irratian komunikatzaile aritu nintzen, eta zinemarako soinu-banda ugaritan hartu dut parte. Negu Gorriak-ekin hasi ginen baita ere birak eta kontzertuak grabatzen eta dokumentatzen, Jamaikako esperientziarekin egin nuen lehen dokumentala [*Bassque Culture*] eta ondoren *Checkpoint Rock*.

Eroso ikusten duzu zure burua zinegile gisa.

Geroz eta gehiago. Batez ere 11 dokumental zuzendu eta gero. Nik dokumentalista diot, ezberdina delako fikzioarekin edo errealitatearekin lan egitea eta ni oso eroso sentitzen naiz errealitatean murgilduta.

Miarritzeko FIPA jaialdian eta Donostiako Zinemaldian epaimahai lanak ere egin dituzu. Ikasteko aukera izan al duzu beste zuzendarien *feedback*-etik?

Bai, asko gustatzen zait eztabaidatzea eta zinema zale amorratua naiz, gainera aniztasuna bilatu ohi dute halako epaimahaietan. Korrante pila bat, ikuspuntu oso ezberdinak ikusteko aukera eman zidan epaimahaiaren egoteak, eta gainontzeko epaimahaiakideetatik bai, beti ikasten da.

Beti nago prest ikasteko, beti irekita. Aurten, dokumental hauetako pare bat lotuta pelikula bat osatzea eta Donostiako Zinemaldian eskaintzea gustatuko litzaidake; gero Mexikon DocsDF jaialdian ere emango dute, beste batzuk ere badituz buruan; eta ETBn ematea ere nahi nuke noski, euskarazko azpitituluekin.

Ezkerrean, zeremonia sufi batean Assiout-en (Egipto); eskuineko argazkian, Maalen Abdendi musika taldearekin errodaiea prestatzen Casablancako kaleetan (Maroko).

"Matxinada langileriak oso ondo ezagutzen duen tresnen bidez egin dute: greba orokorra, baina dena gelditzen duen greba orokorra"



"Emakume asko ageri dira dokumentalotan. Beraien janzkera, oholtza gaineko jarrera jada transgresio bat da"

Azken altxamenduekin, oihartzun izugarria hartu du Al Jazeera kateak. Zein filosofia aurkitu duzu bertan?

Esan dezaket oso harro nagoela beraientzako lan egin izanagatik, berdin altxamenduekin orain egiten ari diren lana ikusita. Askatasun osoa eman didate, behin zein herritan egitea nahi zuten esanda, erabaki guztiak hartzeko. Tentsio momentuak egon dira, korrante ezberdinak daudelako, oso irekia eta ezkertiarra batetik, eta beste bat itxiagoa, eta eztabaida gogorak izan ditugu, baina zuzendariak nire alde egin zuen. Egin irratan ere korrante itxiagoekin izandako talka eta diskusioak etorri zitzaizkidan burura. Harreman handia izan dut Al Jazeera English-ekin eta esan diezazuket, Al Jazeera English dela momentu honetan dagoen komunikabiderik interesgarriena, argi eta garbi, dagoen espiritu eta jendeagatik, gehienak BBCtik etorritakoak.

Al Jazeeraari sinesgarritasuna kentzen saiatu dira ordea...

Bai, bai, eta bonbardatzen! Eztabaida bat dago grabatua, non Tony Blair-ek esaten dion Bush-i ezetz, ez bonbardatzeko Al Jazeera Qatar-eko bulegoak. Bagdadeko bulegoak bonbardatu zituzten. Kazetaritza munduan sekulako prestigioa dauka, baina Europak dituen interesetarako oso txarra da eta saiatuko dira bultzatzen BBC arabieraz eta batez ere Al Arabiya, beraien interesei babes emateko. AEBek eta Saudi Arabiak, konturatu zirenean Al Jazeera zuen eraginaz (bere kate guztiak kontuan hartuta 40 milioi pertsonako audientzia du) eta ezkertiar asko zegoela hor sartuta, beren katea sortu zuten ondoan, Dubain: Al Arabiya, Saudi Arabiako diruarekin, eta nahiz eta kritikoa izan batzuetan, beti azpimarratuta dago Estatu Batuekiko eta Saudi Arabiarekiko menpekotasuna. ■

argia.com Emakume arabiarrez, nazioarteaz, dokumentalez luze gure webgunean.

Musika

Errealitate bizia bildu nahi duen webgunea

Erreferente baten beharra zegoela ikusi zuen Koldo Otamendi musika zaleak. Horregatik sortu zuen duela hilabete gutxi Euskal Herriko rock agenda jasotzeko webgunea: www.musikazuzenean.com. Asteko kontzertuen berri ematearekin batera ataria aberastu du argazki eta bideo galeriekin, baita zozketekin ere.

INAXIO ESNAOLA

Argazkiak: Musikazuzenean.com

ASKOTAN, gehiegitan, oso maiz erantzun bera errepikatzen dute musika taldeek elkarrizketetan: “Zuzeneko banda gara”. Hori horrela izanik, ez da harritzekoa Euskal Herriko musika eszenaren astez asteko kontzertu eskaintza beldurgarria izatea. Soziologoaren egitekoen artean egongo ez bada ere, ondo legoke neurtzea gure lurraldea horren txikia izanda, zenbat kultur emanaldi dauden asteburu bakar batean. Esaterako, rock kontzertuen zerrenda luzea da. Gehiegizkoa ere bai, pentsatuko dute batzuek. Dena dela, errealitate baten aurrean gaude. Talde kopurua izugarria da, eta horietako asko zuzenera begira bizi dira. Eskaintza askotarikoa eta zabala da. Era guztietako eszenatokiak ere ez dira falta, inoiz baino gehiago dira eta. Hazi ez den gauza bakarra ikusle kopurua da. Orain, musika zale horiek kontzertu aukera asko dute eta bakarria hautatu behar.


Garai batean kalera, tabernara edo egunkarietara jotzen genuen kontzertuen berri izateko. Gaur egun ere joera antzekoa da, nahiz eta pixkanaka Internetek ordezkatu duen. Nolanahi ere, agenden informazioa arrunta izaten segitzen du, telegrama baten parekoa. Gabezia horretatik abiatuta jarri zuen martxan Koldo Otamendik Musika Zuzenean web ataria (www.musikazuzenean.com). “Euskal Herriko musika eszenaren hutsune batetik sortu zen. Konturatu ginen ez zegoela zuzeneko emanal-

dien berri ematen zuen inolako mediorik, erreferentzia bat falta zela”. Gunea aitzindaria da hizkuntzari eta edukiari dagokionez. Otamendiren hitzetan, “bai hemen eta bai atzerrian ere, ez dugu gurea bezalako webgunerik topatu”. Izan ere, agendari garrantzia berezia eman diote,

beste euskarazko musika hedabideek ez bezala. “Gurean, oso gauza interesgarriak topa daitezke sarean barna, baina agian gehiago zentratzen dira musikaren beste arlo batzuetan: elkarrizketetan, monografikoetan, diskoen aipamenetan...”.

Musika Zuzenean atariaren ardatza kontzertu agenda da. Euskal Herriko “zuzeneko eszena bere osotasunean” hartzea da ideia. Musikalki, ordea, ez dago baldintza edo mugarik. “Nagusiki

rock musika lantzen dutenak barneratzen ditugu, zentzu zabalenean”, azpimarratu du Otamendik. Kontzertuak herriz herri daude sailkatuta eta asteburuari begira bost edo sei nabarmentzen dituzte. “Ez dago irizpide jakin bat. Agendan diren emanaldiak bildu eta nabarmentzen joaten gara, beti ere oreka mantenduz, herrialde, areto edota musika taldeen artean, garrantzia eman gabe zenbat ikusle batuko diren”. Agenda osatu edo elikatze modu diferentek dituzte, ataria “gune ireki bat bezala irudikatzen” dutelako. Otamendik argi du egitasmoa aurrera ateratzeko “musika taldeek, musikazaleek, aretoek, gaztetxeek edo eragileek parte hartzea” ezinbes-



Ez da edonolako kontzertu agenda: argazkiak, bideoak eta mota guztietako informazioa aurkituko du bisitariak Musika Zuzenean atarian.



JOSU TXINTXURRETA



EGOITZ IRIZAR

Webgunean argazkilari talde polita ere ari da kolaboratzen. Angelus Apatrida eta Willis Drummond taldeen argazkiok horren erakusgarri.

tekoa dela. Eta horretarako, nahi duenak bere emanaldien berri emateko aukera dauka.

Informazioarekin batera, ikusgarritasuna ere landu dute, zuzeneko argazki galeria sortuz. Txukuna, praktikoa eta deigarria. “Ataria prestatzen ari ginela, konturatu ginen argazkilari mordoa zegoela gure artean”, gogoratu du Otamendik. Horrela, irudien bitartez igarotako emanaldien berri ematea erabaki zuten, “bertan bizitakoa berriz bizitzeko edo bertan egon ez zenak gertatu zena jakiteko”. Pixkanaka argazkilari sare polita osatu dute, eta ondorioz, era guztietako argazkiak topa daitezke. Bideo atala ere zuzeneko emanaldiei buruzkoa izatea nahi zuten, baina zailtasun asko izan dute soinu eta irudi onak dituzten bideoak aurkitzeko. Horrela, taldeek argitaratzen dituzten bideoklipak eta zuzeneko batzuk ikus daitezke. Aipaturiko bi atalekin lotuta, kontzertu kroniken atala ere sortu dute. “Gehiago jasotzea gustatuko litzaiguke” dio Otamendik, baina gustura dago orain arte argitaratu dituztenekin. “Argazkien atalarekin bezala, interesgarria deritzogu igarotako emanaldietan bizitakoa ezagutaraztea”.

Zuzeneko emanaldien aurretikoa eta ondorengoa atalka sailkatzeaz gain, pizgarrikerik ere ez zaio falta Musika Zuzenean atariari. Bisitariekin harremana estutzeko eta zerbait gehiago eskaintzeko zozketa gunea zabaltzeko zuten. “Amu gisa sortu genuen, eta jendearen

Musika talde, zaletu, areto, gaztetxe, eragile... denek erkarpenak onartzen ditu Musika Zuzenean webguneak, elkarlanetik osatuko baita Euskal Herriko kontzertuen agenda osatuena

erantzuna oso ona izan da”. Webgunean erabiltzaile profila sortzen dutenen artean, bertako taldeen diskoak, kontzertu sarrerak eta beste zozketatzen dituzte. Horrek harreman zuzena du atariaren harpidetza eskaintzarekin. Horrela azaldu digu Otamendik: “Bi harpidetza mota daude. Erabiltzaile profila sortzen duenak atal ezberdinetara sarbidea izango du: iruzkinak idatzi, kontzertuen berri eman... Aldiz, egitasmoa diruz lagundu nahi duena Musika Zuzen Lagun egin daiteke 25 euro ordainduta. Trukean kamiseta bat eta sariak eskuratzeko lehentasuna izango du”.

Hasiberria den egitasmoak harrera ona izan du musika talde eta zaleen artean. Aurrenekoek badute azkenik sarean txoko bat beraien emanaldien berri nahi beste emateko,

eta bigarrenek, agenda osatuena bertan topatu dezakete. Otamendik oso pozik dago orain arte emandako urratsekin, baina asmo berriak dituztela aurreratu digu. “Atal berriak prestatzen ari gara, eta ekimen ezberdinak martxan jarri behar ditugu epe laburrean”. Hain zuzen ere, web ataria Musika Zuzenean egitasmoaren hasiera baino ez da. Aurrerantzean asmo eta helburu zehatzak dituzte: “Zuzenean egiten diren emanaldiak bultzatu eta sostengatu nahi ditugu. Euskal Herriko musika eszena aberatsa erakutsi eta musika zuzenean bizitzeko gonbita egin. Bide horretan, argazki erakusketa bat prestatzen gabilta, eta zenbait mahai-inguru ere martxan jartzekoak gara”. Musika eszenaren errealitate bizia mantentzeko nahitaezkoak dira horrelako egitasmoak. Taldeek ederki betetzen dute beraien rola, eta ikusleena da hitza. ■

Hemendik aurrera beraz, badakizu: www.musikazuzenean.com helbidea bisitatu besterik ez duzu inguruan ditugun kontzertuen berri izateko.

Liburuak

KRITIKA

Sara, nor zara? Marco Berrettoni Carrara.
Irudiak: Chiara Carrer.
Pamiela-Kalandraka. 27 orrialde. 13 euro.

Haur eta gazte literatura
Xabier Etxaniz Erle



Denok gara desberdin

OSO LIBURU BEREZIA da *Sara, nor zara?* hau; kontatzeko modua-
rengatik, iradokitzen denarengatik, irudien tratamendurengatik...
“Itzal bat paretan irristatu eta desagertu egin da. ‘Nor da?’
Soinu batek gela bete du, eta gero itzaliz joan da. ‘Zer da?’”,
honela hasten da liburua; narratzailea, haur bat da, geroago
hasieran planteaturiko galdera horiei erantzuna ematen dien
narratzailea: “Sara da, nire arreba!”. Eta hain zuzen Sara neska-
toaren inguruan, zer egiten duen, edo zer egiten ez duen, nola-
koa den, zein jokabide duen sarritan, eta hainbat eta hainbat
kontu azalduko dizkigu Sararen nebak.

Irakurleak, baina, berehala ikusi ahal izango du Sara berezia
dela, neskatoak, nebak esan bezala, orduak eman ditzake geldir-
rik, inorekin hitz egin gabe, jolastu gabe, entzun gabe, begiratu
gabe... Izan ere, Sara “bere munduan bizi da beti, bakarrik”.

Neska autista dugu liburu honetako protagonista eta narra-
tzaileak neska hori nolakoa den esango digu, neskaren jokabi-
dea ezagutzen lagunduko digu, neska nolakoa den, zer pentsa-
tzen duen, nola arituko den... Hori jakin, ez dakigulako. Eta
honelako gaiak ukitzen dituzten liburu askotan ez bezala
hemen narratzaileak bere kezka eta beldurrak adierazten ditu:
“batzuetan beldurra ematen dit!” diosku ia oihuka narratzaile-
ak, baina horren ondoren, justu, honako hau ere bai: “Bat-
batean, lasaitu egiten da. Orduan, niregana hurbildu, bere irri-
barrearekin ni laztandu, besarkatu, eta maitasunez itotzen
nau... Maitasun mugagabea, besteena ez bezalakoa”.

Testuan adierazten den ezinegon hori, baina baita kariño eta
hurbiltasuna, irudietan adierazten zaigu. Liburuko ilustrazioek
ez dute kolore bizi eta indartsurik; bada fondo gisa paretetako
papera moduko bat, hostoak eta loreak irudikatzen dituen eta
kolore askotakoa izanik nahiko apalak direnak; horren ondoren
protagonistak ditugu kolore bakarrean irudikatuak, eta baita
itzal gisa hasieran, edo ikuskor —Sara eserita egonik haren atze-
ko pareka ikus dezakegunean neskaren atzean—. Ilustratzailea,
Chiara Carrer, testuak dioenaz harago joan baita liburuko
mezua adieraztean.

É non é liburu hau, euskaraz dugun hitz jokoa erabiliz Fer-
nando Reyk ederki asmatu duen *Sara, nor zara?* bilakatu duena,
irakurri ondoren buruan bueltaka ibiltzen ditugun horietako da;
ez da liburu goxo eta samurra; ezta gordin eta ozpina ere; isla-
tzen duen egoera bezalakoa baita, eta, batzuetan, narratzaileak
dioen bezala “Lur jota uzten nau (Sarak)” baina liburuaren
amaieran ageri den mezuarekin bat eginik, “ez dago bi pertsona
berdinik”: eta Sara, irakurle, zu eta ni bezala pertsona bat da. ■

2009ko euskal liburugintzari errepasoa

Jakin aldizkariaren 2011ko lehen zenba-
kian errepaso sakona egin diote duela bi
urte euskal liburugintzak eman zuen uzta-
ri. Ohikoa den moduan, Joan Mari
Torrealdai arduratu da zeregin horretaz
—33 urte dira dagoeneko hutsik egin gabe
errepaso zorrotz hori egiten— eta hainbat
grafiko, estatistika eta zerrendaren bidez



Jakin 182.
Batzuen artean.
Jakin.
125 orrialde.
12 euro.

gure liburu industriaren
panorama nolakoa den
jakiteko parada eskain-
tzen du. Gainera,
Torrealdai berak *Egun-
kariaren epaia eta euskara-
ren askatasuna* izeneko
artikulu ere idatzi
du *Jakinen* 182.
zenbaki honetan,
azpimarratuz ez
dugula epai horrek
dakarrena “behar
den arretaz iraku-
rri”. ■

‘Bat’ aldizkariaren zenbaki berria

Hausnartu III. soziolinguistika sarian sari-
dun izan ziren artikuluak publikatu ditu
Bat aldizkariak 2011ko lehenbiziko zenba-
kian. Gai ugari landu dute artikuluotan,
baina aldizkari hau egiten dugunoi bereziki
arreta deitu digu *Gazteak, musika eta euskara*
izenekoak azkenaldian guk ere mintzagai
izan dugun gaia baita. Luis Azpiazu sinat-
utako artikulu horretan Arrasateko Ariz-
mendi ikastolako 14 eta 17 urte bitarteko
gazteak ikertu dira, inkestak eta elkarriketa
pertsonal sakonak eginez. Gazteentzat
musikak duen garrantzia ikusita, esparru
horretan jorratu daitezkeen zenbait lan-ildo
proposatzen ditu Azpia-
zuk artikuluen amaiera-
ko partean. ■



Bat 78.
Batzuen artean.
Soziolinguistika Klusterra.
118 orrialde.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Minus bat.
Badaukat.
Autoekoizpena.
Iraupena: 46'33".
10 euro.

Gitarra flamenkoa euskal folk-popera hurbildu zenekoa

GETXOKO taldearen berri lehenengoz izan nuenean irakurri nuen flamenkoa eta euskara batzen dituztela, baina hori oso pieza gutxitan gertatzen da, *Gernikako tangoak* runberoan adibidez. Hain zuzen ere, bi gitarra eta bi ahots batzen dituen laukote honek gitarra flamenkoa eta horren soinua ditu oinarri, baina bi ahots ederrek gidatzen dituzte kantak eta horietan euskaraz abestutako folka eta popa dira nagusi. Goxoak dira kantak, hurbile-

koak eta xamurtasuna eta poztasuna transmititu nahi dutenak. Melodiek badute, baita ere, 70eko hamarkadako euskal kantagileen arrastoa eta malenkonioa pixka bat; eta gitarretan antzeman daiteke Led Zeppelin, Dylan eta iraganeko dinosauroen akordeen ezkutuko arrastoa ere. Bestalde, *Barne bizipenak* da kanta bereziena, erregistro ugari gordetzen dituen.

www.myspace.com/badaukat

Badaukat

«Musikaren bidez sentimenduak eta batez ere poztasuna zabaltu nahi ditugu»

“Badaukat” *el duende*? Nola dakizue kanta batek balio duela, zerbait berezia daukala?

Ezinezkoa da hala den jakitea, baina guretzat bereziak dira ilusio handiz sortutakoak direlako, igortzen duten mezua gustatzen zai-gulako eta zer esana dutelako. Hitz errazak eta melodia garbiak: ahots bi eta gitarra bi, besterik ez dago disko honetan. Sinpletasunak bere xarma du. Hori ote sekretua?

Barne bizipenak pieza salbuespen-tzat hartuta, oso disko positiboa da hau, eta denboraren iraganari ere baikortasunez idazten diozue...

Bizitzari aurpegi ona jarri behar, noski, ez dago beste erremediorik. Hainbeste ez behar, bizitza hain da konplikatua... Edozein gertakari-aren aurrean jarrera baikorra izatea oso lagungarria da eta bizitzako oztupoak errazago gainditzen dira. Musikaren bidez sentimenduak eta batez ere poztasuna zabaltu nahi dugu.



Nola jakin zuen Jose Herediak gitarra flamenkoa eta euskara hain bateragarriak direnik?

Bere hitzetan hori sentitzen, sumatzen edo intuitzen zuelako. Euskararen fonetika gustatzen zaio flamenko airearekin batuta. Adibidez, izugarria iruditu zitzaion Estrella Morentek Kepa Junkerarekin abestu zuenean.

Lanari *Minus bat* izena jarri diozue kanta bat bidean gelditu delako...

Bai, hamabigarren kanta sortua dago, baina arazo batzuen erruz kanpoan gelditu zen. Hurrengo dis-

korik baldin badago, han izango da. Oso abesti alai da, *Sehaska kantarekin* lo gelditu den haurtxoaren ametsa kontatzen dugu.

Nolakoak dira zuen kontzertuak? Folkak edo flamenko erromeriak?

Gure kontzertuak folkak dira batez ere. Asmoa behintzat hori da, eta ildo horretatik bideratzen ditugu gure entseguak. Ez dugu flamenkoa zentzu hertsian lantzen, bestelako estiloak landu nahi ditugu. Izan ere, gutako bakoitzak musika estilo bat entzuten du eta horien ispilu dira gure kantak. ■

Ezpalak

JON TORNER

Nafarroako Liburutegi eta Filmotekak atek ireki ditu


IRUÑEKO Mendebala auzoan dago Nafarroako Liburutegi Nagusi berria, Filmoteka eta Ikus-entzunezkoen Institutua (INAAC) hartzen dituen lau solairuko eraikina.



19.000 metro koadro ditu eta 25,7 milioi euroko kostua izan du. Orotara milioi bat dokumentu baino gehiagorentzako lekua du eraikinak. Horietatik 145.000 kontsultatu ahal izango dituzte erabiltzaileek libreki. Proiektzio aretoa, erakusketa gunea eta ikertzaileentzako gunea izango ditu, besteak beste. Sektoreak begi onez ikusi du Liburutegi berriaren irekiera, baina Nafarroako Liburuzainen Elkarteak (Asnabi) adierazi du eraikinaren kudeaketak kezkatu egiten duela. Izan ere, Mendebaldeko eraikina San Frantzisko plazan zegoena baino askoz ere handiagoa den arren, langileen kopuruak berdina izaten jarraituko du: 18 (txanda bakoitzean 9 lagun).

Marina Nuñezen erakusketa Bilboko Rekalde aretoan

Marina Nuñez (Palentzia, Espainia, 1966) artistak bideoak, margolanak, infografiak eta marrazkiak bildu ditu Bilboko Rekalde aretoan, *Estaltzea ikusteko edo begi alferra* izeneko erakusketan.



“Artistak bere lanetan zabaltzen duen unibertsoan, irudi eta mundu kezagarriak agertzen dira, errealitate berri eta aldi berean, bitxia bada ere, familiar batera eramaten gaituzten irudiak eta munduak”, dio Iñaki Alvarez erakusketaren komisarioak: “‘Beste’ errealitate horretan sortzen diren gorputz mutanteek beren buruetan hazitako tramankulu astunak eramaten dituzte herrestan *Ingenio* (2010) lanean, edo beldurgabe kulunkatzen dira paisaia oniriko bateko magman *Ocaso* (2007) lanean”.

Stephane Hessel (Berlin, 1917) Erresistentziako burkide ohiak “Matxinada baketsurako deia” egin du *Indignez-vous!* (Indigene, 2010) liburuxkan. Milioi bat ale inguru saldu dira jada, eta hamaika hizkuntzataraz itzuli dute. Denonartean zigiluak euskaraz argitaratu du orain, Inma Erreak itzulia, *Haserretu zaitetzte!* izenburupean.



Willis Drummond talde baionarrak *Istan-teak* (Bidehuts) diskoa plazaratu du. Martxoaren 11n Gasteizko gaztetxean joko dute, eta 12an Behorlegin (Nafarroa Beherea).

Véréna Paravel eta J.P. Sniadecki zuzendari estatu-batuarren *Foreign Parts* filmak jaso du Ikuspuntu Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdiko sari nagusia film luzeen atalean. Film laburren atalean ere AEBetako lan batek irabazi du lehenengo saria: Alan Berlinerren *Translating Edwin Honing* filmak. Zuzendari onenarentzako saria, bestalde, Clio Barnardek jaso du, *The arbor* filmarekin.

Arabatakada jaialdia apirilaren 1ean egingo da, Gasteizko unibertsitateko ikasleek antolatuta. Egun osoko jaialdia unibertsitate herrikoia eta euskalduna aldarrikatzeko baliatzen dute gazteek. Goizean olinpiadak izango dira, eta gero bazkari herrikoia eta bertso saioa. Arratsaldetik aurrera, berriz, kontzertuak izango dira. Besteak beste, Berri Txarrak, Esne Beltza eta Zea Mays taldeek joko dute. Sarrerak 8 euro balio du.

● Ainara Gurrutxaga aktore eta Dejabu panpina laborategiko kideak Berrian:

«Uste dut askotan gutxietsi egiten dugula gorputza, eta gure gorputzean gorputz asko daude; XXI.



mendean dago, baina historia, pertsonaia eta gertaera horien guztien ondorio bat da gure gorputza; beraz, gure buruak baino askoz ere gehiago daki, askoz ere memoria handiagoa du. Nire sentipena da gorputzari benetan entzunda informazio pila ematen dizula».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Ruper Ordorikari esker, elkarrekin gara

Haizea Garizumakoa (Elkar, 2009). Ruper Ordorika

BI URTE DIRA JADA *Haizea Garizumakoa* gure begien distirak areagotuz dabilela. Lagun zaharrekin elkartzen naiz oraindik ere, inoizko garizuma irreal honetan.

Urrun, urrun, bihotzeko lagun, hola deitzen ninduzun, bihotzeko lagun. Non da orain lehengo berba goxoa? Oihartzun da egun, bihotzeko lagun.

Zure etxera goaz, bidean gora, hasiberrien pozaz, baratza da eder-eder, erreka aldea ere, munduak badu onik, egin dezagun kantuan goxoki.

Edertasunaz mintzo ziren, harrapa ezinaz. Askatasunaz mintzo zinen, baita gogotik ekin, borrokara emana eta bizitza dohainik.

Bizitzaz mintzo gara orain, hango geroa heldu da, bete gabeko asmoez, kalteaz eta ordainaz. Baina denbora ihesi doa berandu baino lehen, tori, kantutxo hau zuretako da, adixkide, ondo bizi.

Garizuma heldu da, berriz ere, hil honen 9an. Ruper Ordorika jaun kantari txit gorenari esker berben irule eta kantari ari gara elkarrekin.

Hona hemen okerreko belaunaldikook, ezertan asmatu ez dugunok. Norbere lotsaz ardura dadila, gu geureaz arduratzen bezala. Adio atzoko amets gaiztoa, bide estuetatik ere aurrera goaz.

Axular gurekin bildu da Olhabideko bordan. Ateondoan jazarri gara, urratsa nola aurrera eman: "Ez baitaiteke zauria senda elorria barnean deino" diosku aziatik.

Jakina da den guztia ez dela konprenitzen ahal, alabaina nonbait beharko dugu atzeman elkarmin honen gakoa.

Ihesi nahian dabil ene burua, ilargi beteak erakaritzen ura. Gora eta behera dabil ene gogo, ez daki zuzen nondik nora joan.



Goizean goizik, zubi zaharrean, gizon bat ikusi dut errekarra begira, ur lasterrari otoitz eginez bezala: doazela errekan behera gizakien minak, doazela zauri horiek guztiak osatzera itsaso gazira.

Sekulabelardiko kantaria eta Bertolt Brecht batu zaizkigu bidean: "Bizitzea irriz hartu behar da, ez alferrik gal kemena, maitatu une oro, biharko hemen ez bazina".

Hogeita hamar urte luze iragan dira izuen gordelekuetan barrena ihes egin zenuenetik. Alta bada, gauza ttikien erresuman hutsune handia bete duzu harrezkeroztik.

Atahualpak eta Etxahunek zabaldu dute berria: "Buenos Airesetik Barkoxera Iurreta bitarte, aiduru duzu euskaldun jendea". ■

Ruper Ordorikak albestu eta Mikel Asurmendik entzun bezala.

FINALAURREKOAK

Martxoak 12 / Bera
 17,30 - Kultur Etxea

Oskar Estanga
 Eneko Lazkoz
 Oier Lakuntza
 Jon Barberena
 Saioa Alkaiza
 Jon Elizetxe

**NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA**

11

www.nafarroakotxapelketa.com

Antolatzailea:

Laguntzailea:

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

MUGAN DAGOENA MUIN, MAMI	↓	SORTERRIA NAZIOARTE- KO OLINPIAR BATZORDEA	↓	ZELAI	↓	JOSU SANTESTEBAN	↓	UGAZTUN BASATI LAPURDIKO UDALERRIA	↓	BORROKARIK EZA SUSMO TXA- RRA HARTU	↓	ABEREEN ORGANO PERTSONAIA- REN IZENA	↓
↓		↓		↓				↓		↓		↓	
ZAPORE ONEKO TREBEA EZ DENA	→							KALENTURA TEMA	→				
↓						ZIZARE POSTU	↓	LASAITASUN HANKAREN GILTZADURA	↓				
POTASIOA HOBETO	→	ASKE ARABAKO UDALERRIA	→			↓		↓		EUSKAL JAINKOSA TABERNA	→		
↓		↓			GELA ARDIAREN KUME	→				↓		LEKU ATZIZKIA KANPORA	→
EBAKUNTZAK EGITEA HEL- BURU DUEN MEDIKUNTZA ALORRA	→	NAFARROAKO HERRIA SASOI (ALDE- RANTZIZ)	→		↓	DEBAKO AUZOA ERLIJIO- IRUDI	→						HOZKI
↓		↓				↓		FITSIK, DEUS EZ GIPUZKOAKO UDALERRIA	→				↓
ZILARRAREN SINBOLOA SEME NAGUSI	→			GOIALDEA, GAILURRA UNE LARRI	→			↓		ATOMO KARGATU LANDARE MOTA	→		
↓				↓		... ATERA, SUMINDU EZ EME	→			↓		ROENTEGN OINARRIZKO EDARI	→
PERTSONAIA- REN ABIZENA EGUNKARI	→					↓		ZEU KILOA	→				↓
↓								↓		GURUTZEAN JARTZEN ZUTEN IDAZKUNA	→		

Kike Amonarizen umorea

Horrela bizi baino...

Aurreko batean Mirenekin egin nuen topo kalean.

– Aupa Miren. Zer gertatzen zaizu? Oso urduri ikusten zaitut!

– Urduri? Hara! Gaur ama bazkaltzera gonbidatu dut. Kafea hartzen ari ginela, filosofatzen hasi gara, bizitza bateko, heriotza besteko... Eta honelaxe esan diot: “Hara, ama! Noizbait zerbait larria gertatuko balitzait, ez



mantendu bizirik egoera begetatibotan, makinan eta botiletako likidoen menpe. Egoera horretara heltzen banaiz, ez zalantzarik izan eta bizirik mantentzen nauten gailu guztiei entxufea kendu! Horrela bizi baino, nahiago dut-eta hil”. Eta bat-batean, ezer esan gabe, telebista, DVDa, PCa, MP3a, PLAYa eta WIIa, deskonektatu, Ipod-a eta Blackberry-a kendu eta garagardo botila guztiak zakarrontzira bota ez dizkit bada!

Soluzioa

G	B	S	U										
O	T	S	A	R									
I	S	U	K	A	R								
						S	O	S	E	G	U		
						H	B	E	T	O	A	N	
						K	A	R	E	L	A	S	T
						U	R	K	A	R	G	I	A
						K	I	R	G	A	L	A	I
						P	R	E	M	U	O	N	E
						A	L	E	M	A	N	Z	U
						E	G	U	N	E	R	O	K

maite ditugu
igandeak

eta hemendik aurrera

are gehiago

7K

Euskal Herriko igandekariaren

aro berria

igandeetan **GARA** -rekin

Osasuna

JABIER AGIRRE

Oinez ibiltzea, edonoren eskura dagoen terapia

ADIMENA erlaxatzen du, odol-zirkulazioa bizkortu, eta bihotz, birika eta hesteen funtzionamendua hobetzen du, muskuluetako mina arindu eta argaltzen laguntzen du, hezurak babestu eta gogo-aldarteak hobetzen du, hezur-haustura edo lesio baten ondotik susperraldia erraztu eta defentsak gehitzen ditu... Aipatutako horiek, eta baita gehiago ere, dira egunean 30 minutu pauso azkar samarrean ibiltzea bezalako ariketa errazak osasunari dakartzkion onurak. Hala ere, ordu erdi hori segidan edo jarraian egiterik ez bazenu, banatu itzazu ibilaldi horiek hainbat tarte edo unetan, eta horrek ere mesede egingo dizu.

Ohitura osasungarri horren abantailak ahalik eta gehien disfrutatzeko, hona hemen gomendio erabilgarri batzuk:

- **Berotzea oso garrantzitsua da.** Hasteko, aurreneko bost-hamar minutuetan erritmo moteltxoagoan abiatu, muskuluak berotu eta martxa egokian jartzeko. Ondoren, bizkortu zure pausoen abiadura eta har ezazu erritmo konstantea. Azkeneko minutuetan erritmoa zertxobait moteltzea komeni da, eta amaitzeko luzatze ariketa batzuk egitea.

- **Oinetako egokiak aukeratu.** Zapata normalak edo kirol-oinetakoak direla ere, erosoak izan behar dute eta oinak haien formara behar bezala egokituta geratu behar du.

- **Postura egokia eta zuzena izan.** Saia zaitez sorbaldak erlaxatuta eta bizkarra zuzen mantentzen. Muskuluek hobeto egingo dute lan, eta birikek aire gehiago hartu ahal izango dute. Zure pausoak orekatzeko, gorputz osoa mobilizatzeko eta baita kaloria gehiago erretzeko ere, ibiltzean atzean geratu den hankaren kontrako aldeko besoa aurreratu behar da. Eta oin bat lurretik jasotzean, aurrena orpoa jarri behar da lurzorua gainean eta oin-zola osoa gero, behatz-puntetara iristeko.

- **Esfortzua dosifikatu.** Pauso arinean ibili, baina gehiegi nekatu gabe, hatsa galdu gabe, arnasketa kontrolatuz betiere. Giltzadurak gehiegi ez kargatzeko, pauso labur eta ongi markatuak eman.



Hiperaktibitatea, sormenarekin lotua

Arreta Gabeziaren Hiperaktibitate Nahasmendua (AGHN) daukaten heldu gazteek ohi baino sormen handiagoa daukate, AEBetan egindako ikerketaren arabera. AGHNdunek gus-tuko dute ideia berriak sortzea, baina ez dira hain onak hasitako lanei amaiera ematen. <http://ttiki.com/24012> (Gaztelaniaz)

Nano-partikulak, ihes-hoditik arnasbideetara

AEBetan, halaber, beste ikerketa batek demostratu du nola egiten dieten kalte gure arnas-aparatuko zelulei ibilgailuetako ihes-hodietatik jaurtitzen diren zenbait nano-partikulak. <http://ttiki.com/24013> (Gaztelaniaz)

Saguen ilea haztea eragiten duen botika aurkitu dute kasualitate bati esker

Estresak saguen hesteetan duen eragina ikertzen ari zirela, ilearen hazkundea suspertzen duen konposatu kimikoa aurkitu du ikertzaile talde batek. "Burusoiltasunaren aurkako farmakoa agertu da ezustean", eta jite horretako titularrak zabaldu dira sarean. Guk, orrazia erostera lasterka joan baino, nahiago dugu zuhurra izan. Momentuz, dakigula, saguengan... <http://ttiki.com/24014> (Frantsesez)

Unai Brea

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Ostatu hartu eta eman

NEGUAREN GORRIAREN ARINTZEN laguntzen duten azen hostoen jaten aritzen diren beldarren ostatu da kukulorea, *Lychnis flos-cuculi*. Udaberria eta uda kukulorearen hostoak janez biziko da, gero azarenei heltzeko. *Mamestra brassicae* izena du gaueko sits honek; aza, azalorea, bruselaza, aza gorria eta aza guztietan ostatu hartu eta jaten duelako da *brassicae*. Sits honen beldarrak udaberria igarotzeko kukuloreaz gain beste landare ostalari gehiago ere izaten du: tipula, kukubelarra, zerba, astamahats ale-beltza, ilena, kalamua, urre-lilia, kuiak eta kurkubiak, krabelina, eguzki-lorea, isipu-belarra, uraza, lihoa, tomatea, sagarrondoa, tabako-belarra, ilarra, errefaua, arabarba, uztaoa, patata, ziazerba...

Ugaria da sitsak eta tximeletak biltzen dituen Lepidoptera familia, ehunka milaka espezie ditu baitan. Azaren sitsak bezala gehienek landareak dituzte ostalari, xalo-xalo apopilo hartu eta igartzetako bazka izango diren landareak. Familia honetan aipagarria da milaka espezie dituen *Coleophora* generoa. Lore, hazi

edo hostoak janez hazten dira beldarrak, eta ez edozein landarerenak, espezie askok landare zehatz eta bereziak behar dituzte. Hona *Coleophora* genero honetako tximeleten beldarrak aurkitzeko egokiera emango dizuten landare batzuk: asentsio-belarra, uso-belarra, urrezko makila, ihia, elorri beltza, garadaizka, zuhandorra, txorbeltza, gaukara, kukulorea, astakamamila edo zizare-belarra, otea, egilitsa, astalbahaka, amuntza, katu-belarra, oreganoa, zolda, hirustak, gardulatza, nabar-lorea, udazken mendabelarra, sabia, esparragoa, inurri-belarra, oilo-belarra, garikota, azeri-mahatsa, milorria, artemisia mina, milazka afrikarra, otondo-belarra, axarioa, asun-borta, zapartabelar zuria, Narbonako lihoa, azitraia, xiristola, piper-belarra, odolurra, ur-piperra, astapiperra, betibizi horia, isats arantzaduna, sabi hostozuria, sapelarra, izar-belar arrunta, ikara-hostoa, estrepa, loitosina, zarrantza, kukuso-belarra, zalkea, laharra, krabelina, olibo-zumea, ariketa, luzerna, itsabalkia eta abar luuuuuuuuuuuz bat.



Betor negua

Ilargialdi bat eskas negu besterik ez da gelditzen. Aurren lehorretik badoa ere hotzak sueto jo du eta ganbara eta mandioetako erreserbetatik gustura tira da. Tira du zuenak... Hona negurako jaki onenetako bat: kuiak (*Cucurbita* spp). Makina bat moldetakoak badira. Luze eusteko argitasun gutxiko eta airea erraz berritzen den tokia da egokia. Lehorrean egotea ezinbes-

tekoa. Hala ere hemendik atzera, lehenaz gain, are eta gehiago usteltzea normala da. Azken urteetan Gipuzkoan ematen ari den gizarte-saltsa garrantzitsuenetakoa osatzen duten BasHerri edo baserritar eta kontsumitzaile ekologikoen elkarte baten ganbara da honoko hau. Otsaila bero negua gero, diogu esieran. Betor.

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Baseball-ak gona zuenekoa

CHICAGO (AEB), 1942ko UDAZKENA. Philip K. Wrigley (1894-1977) txikle magnate ezaguna kezkatuta zegoen, aitzak oinordekotzan utzi zion Chicago Cubs baseball liga nagusiko taldea arriskuan zegoelako, beste talde guztiak bezalaxe. AEBek Bigarren Mundu Gerran sartzea erabaki zuenetik, 18 urtetik gorako gizonezko asko errekrutatzen ari ziren eta, ondorioz, maila txikiagoko liga asko desagertu ziren. Liga nagusia ere bertan behera gera zitekeela ikusi zuten, izarretako batzuei gerrara joateko dei egin zieten. Wrigleyk batzorde bat antolatu zuen arazoari konponbidea eman nahian eta ideia haxe nagusitu zen: emakumezkoen liga sortuta, baseball zelai nagusiak betetzea lortuko zuten.

Hala, 1943ko udaberrian All-American Girls Professional Baseball League (AAGPBL) sortu zuten. AEBetako eta Kanadako emakumezkoen softball liga amateurretako jokalaria bildu zituzten—softballean, pilota txikiagoa da eta baseen arteko distantzia ere bai—, eta 60 onenak aukeratu zituzten hamabost jokalariko lau talde osatzeko: Kenosha Comets, Racine Belles (lehen urteko irabazleak), Rockford Peaches eta South Bend Blue Sox.

Goizez baseball jokalaria profesionalen ohiko entrenamenduak egiten zituzten, baina arratsaldetan bestelako prestakuntza jaso behar zuten neskek. Wrigleyk Helena Rubinsteinen Xarma Eskolara joatera behartu zituen. Bertan egoera guztietarako et



WWW.BIOTOJ.SABR.ORG



WWW.TRIPOD.COM

Goian, Sophie Kurys, Racine Belles taldeko jokalaria. Beheko argazkian, jokalaria Ligak ezarritako arau zorrotzak betetzen; ezpainak margetzen, alegia.

keta egokia, eta andereño zintzoek izan beharreko janzkera nahiz jokaera irakasten zizkieten. Bakoitzari edertasun kit bat oparitu zioten eta berau nola erabili irakatsi. Ligaren araudia- ren arabera, jokalariek ezin zuten toki publikoetan erre edo alkoholik edan, ezin zuten ile motzik izan, uniformeko gonak—galtzak pentsaezinak ziren, jakina— ez zuen belaunetik gora sei hazbete baino gehiago erakutsi behar eta uneoro ezpainak margotuta izan behar zituzten. Arauren bat hautsiz gero, bost dolarreko isuna ordaindu behar zuten, bigarreneginez gero hamar dolarrekoa, eta hirugarren akatsak ligatik kanporatzea zekarren.

Ordainetan, asteko 45-85 dolar artean jasotzen zituzten; soldata bikaina zen, baina ez zuen zerikusirik gizon- ezko jokalariek irabazten zutenarekin edo Wrigley eta enparauek neskei esker lortzen zituzten mozkinekin.

1943ko ligaren arrakasta ikusita, 1944an hiri nagusietako estadio handietara eraman zituzten neskek, baina urrundik ezpainak margotuta ote zituzten ez zen antzematen, nonbait. Gerra amaituta eta gizonak itzulita, AAGPBL zelai txikietara mugatu zuten, Wrigleyk interesa galdu eta

beste batzuen eskutan utzi zuen, kirol prentsak emakumezkoen jokoa goraipatu arren liga pixkanaka itzaltzen joan zen, eta, gerraren beroan komeni zena Gerra Hotzean desegokia zenez, 1954an betiko desagertu zen.

Arrastoak

Kataluniak historiari buruzko “youtubea” dauka

KATALUNIAR HISTORIALARI talde batek Histotube ataria sortu du, historiari eta ondareari buruzko katalanezko bideoak eta 3D fitxategiak jasotzeko (<http://histotube.blogspot.com/>). Ataria hogei bat ikus-entzunezkorekin abiatu da, baina astero eduki berriak

sartzen ari dira. Webguneak, dagoeneko, Ilerdako terma publikoetara (Lleidat) joateko, Espainiako Gerrako Ebroko Gudua berri izateko eta Barcinon, erromatar garaiko Bartzelonan, alegia, ibiltzeko aukera ematen du, besteak beste.



Iberpapel

Euskal Herrian uso, Argentinan otso

Iberpapel euskal enpresak hezegune bat deuseztatu du Argentinako Entre Ríos probintzian, Caraballo erriean. Iberpapelek Hego Amerikan 19.331 hektarea lur ditu eukaliptotarako, eta hezegune horretan zortzi kilometro luzeko lubeta eraiki du. Herritarren protestaren ondoren, Entre Ríoseko Gobernuak parajea lehengo egoeran uzteko agindu dio enpresari.

URKO APAOLAZA

HEZEGUNEEN MUNDUKO EGUNA zela-eta Txingudiko paduretan Eusko Jaurlaritzak ekitaldia egin zuen otsailaren 2an ponpa handiz. Ingurumen sailburuorde Nieves Teranek harro gogorarazi zuen EAEko sei hezegune daudela *Ramsar* zerrendan. *Ramsar* munduko hezegune garrantzitsuenen zerrenda da, ia 2.000 leku daude bertan katalogatuta, eta nazioarteko babesa dute. Argentinako El Palmar erreserbako hezeguneak ere zerrenda horretan daude; hain zuzen, Iberpapel euskal enpresak erreserba horrekin muga egiten duen hezegune bat deuseztatu du.

Caraballo errioko hezegunea Entre Ríos probintziako Liebig herriaren iparraldean dago. Iberpapelek 7.000 hektarea lur ditu inguruan eta 2008. urtean eukaliptotarako erabili ez duen lur sail urrietako batean lur mugimenduak hasi zituen, lubeta handi bat eraikitzeko. Ondorioz, hondamendia eragin du 1.000 hektareako *2 de Agosto* hezegunean –Caraballo biodibertsitate handiko lekua da, milaka animalia eta landare espezieren bizitoki–, Urdaibai baino handiagoa den eremuan.

Hezeguneak funtzio garrantzitsua du, erriok hazten direnean uholde-lurra izaten baita; Gobernuoko ingeniari batek egindako ikerketaren arabera, Caraballon egindako itxidurak 5 eta 16 zentimetro artean igo dezake uraren maila eta Uruguai



PASAIKO PORTUKO AGINTARITZA

Avalón zama-ontzia Pasaiako badian. 19.000 tona egur ekarri zuen Argentinatik Hernaniko Zikuñagan Iberpapelek duen lantegirako.

ibaiaren abiadura bizkortzea ekarriko du, kalte handiak eraginez.

“Produkzio intentsiborako egoiak ez direnez, zenbait pertsonak leku ez probetxagarri moduan ikusten dituzte. (...) Horregatik, askotan hezeguneak eraldatzen dira erreka eta errioei espazioa irabazteko”. Entre Ríoseko probintziako Ingurumen idazkari Fernando Rafforen hitzak dira, Hezeguneen Munduko Egunean esanak hauek ere. Orain, lubeta desegin eta Caraballoko hezegunea lehengoratzeko agindu dio Entre Ríoseko Gobernuak Iberpapelari, ingurumen baime-

nik ez duela eta Uruguai Ibaiko Tratua bortxatzen duela egotzita.

Iberpapel: euskal enpresa bat

Euskal Herrian dagoen papergintzako enpresa-talde handienetakoa da Iberpapel; burtsan kotizatzen du. 1997an sortu zen, Hernaniko Zikuñaga auzoan dagoen paper lantegia bizkar hezur hartuta –lantegi hori da taldearen produkzio zentro nagusi eta bakarra–. Iberpapelek egoitza soziala Donostian du eta Euskal Herriko enpresariak kontrolatzen dute. Akziodunen artean, esaterako, Banco Guipuzcoano



Goian: Iberpapelek eraikitako lubetaren dimentsioak Google Earth-en ikus daitezke (gorriz markatua); aldamenean Urugai ibaia ageri da. Behean: Obraren bertatik bertako irudi bat, sortutako kalteekin.



lok sortzen dituzten onurak azpimarratu izan ditu prentsan, aldaketa klimatikoa eragozteko “karbono hobiak” direla eta “terreno antzuak” berreskuratzen dituztela esanez. Aitzitik, Hego Amerikan gero eta gehiago dira landaketa horien kontra ari diren herritar talde eta sareak. Argentinako Caraballoko hezegunearen aldeko borrokak ere talde horietan du jatorria.

“Jango ditugun arrainak izango dira kutsatzen lehenak”

Badirudi Caraballon 2008an hasi zirela nabaritzen hezegunea belarretatik garbitzeko suteen kea, baita lur mugimenduak ere. Baina 2009ko udazkena arte ez ziren lehen salaketa ozenak entzun. Entre Río-seko legebiltzarreko diputatu batek obrak zer kalte egin zituen kontrolatzeko eskatu zion bertoko gobernuari; ildo horretatik, inguruko hamarnaka gizarte taldek (arrantza-le kofradiak, aurrezki kutsak, familia elkarteak, eliz-parrokiak...) eta 2.500 herritarrek gutun irekia bidali zioten Iberpapel: “Jango ditugun arrainak izango dira kutsatzen lehenak”, diote bertan.

Paper-enpresa Colon departamentuko ekologisten herri-asanbladarekin bildu zen 2009ko irailean eta obrak egiteko baimena zuela azaldu zuen. Baina ekologistek salatu zuten proiektuak ez zuela ingurumen-inpaktu azterketarik eta auzitara eraman zuten Iberpapel. Modu berean, Entre Río-seko Ingurumen sailak ikerketa abiarazi zuen obren egoera legala zein zen aztertzeko, eta 2010eko udaberrian obrak gelditze-ko agindu zion enpresari.

Herritarrek ez dakite zehazki zertarako erabili nahi duen Iberpapelek zortzi metro altuerako lubetak itxen duen eremua, baina arroza eta soja produzitzeko izan daitekeela zabaldu

dago. Bestalde, Iberpapeleko administrazio kontseiluko presidente Iñigo Echeverria bilbotarra da.

Paperaren eskariaren jaitsierak egoera zailean utzi du Iberpapel azkeneneko urteetan, baina ia sekulako irabaziak izan zituen –16,5 milioi euro, %250 gehiago–, besteak beste, paperaren prezioa garestitu delako eta baita energiaren sektorean inbertitu duelako ere (ikusi ondoko koadroa).

Zikuñagako lantegia 1935ean sortu zen eta eskualdera diru-abe-rastasuna eraman duen enpresa motorretako bat izan da. Egun 270 langile inguru dabil-tza Hernaniko faktorian, lantalde osoaren %90. Langileok euren soldatak hobetzeko borrokan aritu izan dira azkenaldian eta 2010ean grebara jotzeko zorian izan ziren.

Dena den, ekonomia berrira egoitzen jakin duen enpresa da; azkenaldian modu “integratuan” funtzionatzeko neurriak hartu ditu eta

horien artean dago Hego Amerikan lurak erosteko politika. 1988tik ari da lurak erosten *eucalyptus globulus* arbola produzitzeko, eta horrekin, papera egiteko egurraren autohornikuntza tasa %30era igo nahi dute. Egun 19.331 hektarea ditu bertan, Urbasa-Andia natur parkearen adinako eremua.

Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO) *Munduko Basoen Egoera 2011* azterketak dio, Hego Amerikan baso landaketek %3,2 egin dutela gora urtean azken hamarkadan, batez ere Filandiako papelera erraldoiek bultzatuta. Euskadiko Paperaren Clusterreko gerente Iñaki Ugartek baso artifiziala

Iberpapel 1988tik ari da lurak basotarako erosten Hego Amerikan; autohornikuntza maila %30era igo nahi du modu horretan

Elektrizitatea, paper fabriken negozio berria

Peak Oil-a jo dugula erakusten duten zantzuak garbiago ageri zaizkigun honetan –arabiar herrialdeetako errebolta testigu–, beste energi-iturriek gero eta balio handiagoa dute. Horrela uler liteke “berritzagarri” deitu energiak sortzeko azken urteetako *booma*, edota hondakinak erregai moduan erabiltzeko planak. Paper fabrikek aukera ezin hobe ikusi dute energiaren sektorean. Paperaren krisiari aurre egiteko, kogenerazioaren bidez elektrizitatea sortzeko karrerari ekin diote.

Iberpapelek 40 milioi euroko inbertsioa egin du 2008an Hernanin duen paper fabrika handitzeko. 50 MW-ko potentzia sortzen duen gas kogenerazio planta eraiki du enpresak, erregai fosiletatik energia elektriko eta energia termikoa aldi berean lortuz. Iberpapel, lbedrolari elektrizitatea erostetik, hura saltzera igaro da urte batetik bestera eta energia elektrikitik eratorritako negozio zifrak %227ko igoera izan du enpresarentzat. Horrela, 2007an elektrizitatearen salmentatik 3 milioi



Hernaniko Papelera de Zicuñaga S.A., Iberpapel taldearen filial nagusia.

euro lortu zituen Iberpapelek, 2008an aldiz, 10 milioi euro baino gehiago. 2009an, gas kogenerazio planta urte osoan martxan aritu zen lehen urtean, 35 milioi euro lortu zituzten elektrizitatea salduz, negozio zifraren %20a, eta enpresak galerak ez izatea ahalbidetu zuen horrek, paperaren salmentan beherakada itzela izan zutelako.

Nafarroako Allo herriko Georgia Pacific paper lantegiak

ere –*Colhogar* marka ezaguna merkaturatzen duen enpresa– inbertsio oso handia egin du 15 MW-ko kogenerazio planta eraikitzeko. Bestalde, Durangoko Smurfit Kappa Nervión-ek biomasa tratatzeko zentrala irekiko du, modu horretan elektrizitate sorkuntza %40 igo nahi du Durangoko papelerak, eta horretarako, 20 milioi euroko inbertsioa egin du.

Energiaren Euskal Erakundearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko industrian kogenerazio bidez instalaturik dagoen elektrizitate potentziaren %31 paper lantegiei zegokien 2008an.

da zenbait forotan. 2007an Entre Ríos-en onartutako Egurraren Legeak zailtasunak ekarri dizkie enborrak esportatu nahi dituzten enpresei. Ondorioz, jabetzan dituzten lurri etekina ateratzeko beste bide batzuk bilatzen hasi direla dirudi.

Horrelako “desertu berdeak” erruz fumigatu izan dira eta ingurua kutsatzeko arriskua handia dela uste dute herritarrek. Prezeski, Hacha&Tiza talde ekologista argentinarrak ARGIAri azaldu dionez, Iberpapelentzat fumigazioak egiten ari zen langile batek zauri larriak izan ditu gorputz osoan pozoien ondorioz.

Fumigazioak eta basolanak egiteko hirugarren enpresak azpikontratzen dituzte normalean. Berrikitan, Iberpapel, kontratazio ilegaleko eskandalu batean nahasirik agertu da medioetan. Argentinako lan ikuskaritzako erakunde batek jorنالari ugari aurkitu ditu enpresaren terrenoetan oso modu prekarioan lanean, eta kontuak eskatu dizkio Espainiako administrazioari. Iberpapelek, ukatu egin du langile horiek beretzako lanean ari zirenik, eta lur horiek beste enpresa bati utzi zizkiola azaldu du.

Caraballoko sententzia aitzindaria izan da eta Argentinako beste kasu batzuetan ere agindu bera ematen hasi dira jada

Lubeta ez dute eraitsi oraindik

Caraballoko lubeta eraisteko Erresoluzioa (187/10 zk.) 2010eko irailaren 23an eman zuen Entre Ríos-eko Gobernuak. 90 eguneko epea ematen dio enpresari obra eraisteko eta 180 eguneko hezegunea lehengo egoeran uzteko. Inoiz ez zuen Argentinako administrazio batek hain neurri zorrotzik hartu horrelako obren inguruan. Caraballoko kasua, lubetak eraiki dituzten beste kasu batzuetan ere eraisteko aginduak emateko aurrekaria izan da, Corrientes probintziak esaterako.

Dena den, enpresak errekurtsioa jarri dio Gobernuaren ordenari eta orain Estatuko fiskaltzak erabaki beharko du. Hilabeteotan Iberpapelek Caraballoko obrekin jarraitu du, hala ikusi ahal izan zuen 2010eko abenduan Entre Ríos-eko Ingurumen sailak, kaltetutako

gunean egindako inspektzio batean. Hacha&Tiza taldearen esanetan gobernuko funtzionariak joan ziren egun berean salaketak izan ziren hezegunean lanean ari zirelako: “Ez da ezer egin, negozioekin jarraitu besterik ez” diote.

Egoera hori Blanca Osuna senadoreak ere salatu du duela gutxi Nazioko Senatuan, Argentinako organo gorenean: “Ezin zaio entzungor egin Colon eta inguruko elkarte protektionisten aldarrikapenari, Estatuak eraispena berrestea” dio Osunak Senatuan aurkeztutako proiektuan. Izan ere, azkenaldian, berriz ere altxa dira Iberpapelen obraren kontrako ahotsak, bai Liebigen eta baita Caraballo inguruan dauden beste herrietan ere.

Eusko Jaurlaritzak eta Europar Batasunak Iberpapel saritu zuten 2010ean ingurumenaren kudeaketan egiten duen lanagatik. Argentinako gertakariak, ordea, ez da informaziorik zabaltu. Astekari hau Iberpapelen komunikazio zerbitzuekin harremanetan izan da, enpresaren iritzia zein den jakiteko. Azaldu dute Iberpapelek ez duela “ezer esateko” kasu honen inguruan. ■

Txinako ekonomia

2020an pelotoiaren buru, baina ongizatearen karreran erratzak harrapatzeko zorian

Txinako ekonomiak Japoniakoaren tamaina gainditu berri du eta, datorren hamarkadaren amaieran, AEBetako ekonomia ere gaindi dezake. Euskal ekonomia, parametro horietatik oso urrun egon arren, Txinako gune nagusietan sartzen hasi da eta inportazio zein esportazio ahalmen izugarria duen 1.400 milioi biztanleko herrialdeaz baliatu nahi du.

DANIEL UDALAITZ

TXINAKO EKONOMIAK Japoniako gaitu zuen lehenengoz 2010eko lehen seihilekoan. Eta, zantzu guztien arabera, Asiako ekonomia horrek AEBetako ere gaitutuko du datorren hamarkadaren amaieran. Hori bera aurreikusi du Munduko Bankuak eta horretarako data zehatza ere eman du: 2020. urtea. Esportatzeko eta inportatzeko ahalmen handia duen herrialde horrek duela zenbait urte hainbat euskal enpresen arreta erakarri zuen, esaterako, Mondragon Talde Kooperatiboarena, bertan dagoeneko hainbat industria planta ezarri dituen taldearena. Ondoren, beste euskal enpresa batzuek Mondragonen bidea hartu zuten eta dagoeneko inguru horietan negoziotan dabiltza. Joan den irailean, EAEko Merkataritza Ganberaren ordezkari batzuk Txinara bidaiatu zuen negozio aukerak aztertzeko eta Txinako zenbait enprekin akordioak lortzeko.

AEB, Txina eta Japonia: munduko hiru potentziak

Txinako ekonomiak etengabeko hazkunde izan du Den Xiaoping-ek 1978an erreformak abiatu zituenetik. Eta hazkunde hori munduko ekonomiaren batez bestekoa baino askoz handiagoa izan da. Hauek dira nagusitasun geroz eta handiagoa bermatzen eta aurreikusi araz-



Langilea Txinako faktoria batean aparatu elektronikoak egiten.

ten duten datu batzuk: lidergoa esportaziotan; balio erantsia duten ekoizpenen geroz eta garrantzia erlatibo handiagoa, soilik eskulan merkeari esker intentsiboak diren manufaktura sinpleetatik urrun; nazioarteko erreserben garrantzia;

atzerriko inbertsio zuzenen fluxu potentziala; geroz eta kontrol handiagoa lehengaien ekoizpenean; Txinako hainbat enpresek lortutako kapitalizazioa, eta abar.

Horrenbestez, Txinako ekonomia Japoniako gaitu du tamai-

Bilbo, Txinarentzako sarrera portu?

Bilbo European eta Hego Amerikan sartzeko portu gisa balia dezake Txinak. Hauxe da Europako Batzordeko Kanpo ministro ohi eta NATOko idazkari nagusi ohi Javier Solanaren tesietako bat, *El País* egunkarian argitaratutako *España como puerto de entrada para China* (Espainia Txinarentzako sarrera portu) izenburuko artikuluan azaldu zenez. Solanak Build Your Dreams (BYD) enpresa erraldoi txinatarrak Berge euskal taldearekin sinatutako operazioa nabarmendu zuen; BYD etorkizuneko ibilgailu elektrikoentzako ezinbestekoak diren batera elektrikoen munduko liderra da eta Berge horien banatzaile izateko akordioa lotu dute. Testuinguru horretan, galdera hau botatzen du Solanak: "Zergatik ez dute BYDren Europako eta Hego Amerikako egoitza Espainian jarriko? Gune operatiboak Madril eta Bilbo izan litezke".

Orain arte, Txina eta Euskal Herriaren arteko harreman ekonomikoak nagusiki EAerekin izan dira. Egungo harremana oso desorekatua da, hobetzeko asmoa izan arren EAEk 712,2 milioi euro inportatzen eta 259,0 milioi euro esportatzen ditu. Proporzionaliki, Dragoi Handiaren eta Espainiako Estatuaren arteko harremana ez da hobe. Txinak urtean 15.000 milioi euro saltzen dizkio Espainiako Estuari eta erosi, berriz, 2.000 milioi baino ez, 2009ko datu ofizialen arabera.

SPRI taldearen azken datu ofizialek diotenez, 2008an 107 euskal ezarpen zeuden Txinan, benetan 92 enpresarenak izan arren, horietako batzuk egoitza bat baino gehiago baitzuten. Gehienak, %49, ekoizpen plantak ziren, %36 merkaturatze guneak eta gainerako %16 zerbitzu guneak.

nan 2010. urtean. Japoniako BPG izendatua 1,2 bilioi dollarrera irits zen urteko bigarren hiruhilekoan, eta Txinakoa, aldiz, 1,337 bilioikoa izan zen. Urteko lehen seihilekoa hartuta, ordea, Japoniako BPG Txinakoa baino handiagoa izan zen (5,05 bilioi Japoniakoa eta 4,9 bilioi Txinakoa). Txinako ekonomiaren aurrerapena geldiezina da eta Japoniako ekonomiaren lehengoratzek oso hauskorra izaten jarraitzen du, deflazioaren, zor publikoaren eta barne eskari ahularen mehatxupean.

Honekin batera doan taulan BPGren munduko sailkapena jaso dugu. Soilik AEB dago Txinaren gainetik, 14,6 bilioi dolarreko BPGrekin. Txinako BPG, urtez urte, Japoniako, Alemaniako, Frantziako eta Erresuma Batuko BPGetatik urruntzen ari da. Are gehiago Espainiako BPGtik (1,37 bilioi dolarrekoa da eta munduko rankingean 12.a da).

Txina garapen bidean oraindik

Txinako ekonomiaren zifrak handiak izan arren, 1.400 milioi biztanle dituen herrialdea garapen bidean dago oraindik. Eta tesi hori ez da Txinako ekonomia eta errealitatea behatzen duten ikusatzaila atzerriarrena, bertako buruzagiena baizik. Hala adierazi zuen iragan uztailean Jao Jian Txinako Merkataritza Ministerioko bozeramaileak: "Ahalgin handiagoa egin behar da kali-

tate ekonomikoa eta herritarren bizi maila hobetzeko. BPG osoaz gain, biztanleko BPGz ere arduratu beharko genuke".

Zenbait datu adierazgarri

Txinan milidunasko eta Europako hiriburu askotan baino luxuzko auto gehiago egon arren, txinatarren biztanleko urteko errenta (3.600 dolar) Japonekoa (37.800 dolar) edo AEBetakoa (42.240 dolar) baino askoz txikiagoa da. Pekinekin, tripulatutako bi misio bidali ditu espaziora, baina 150 milioi pertsona pobrezia atalasearen azpitik bizi dira oraindik, Nazio Batuen baremoaren arabera. Horrenbestez, 2009ko biztanleko BPGren munduko sailkapenean, Txina 103. lekuan zegoen, Angolarren eta El Salvadorren artean, Munduko Bankuaren datuen arabera. Japonia aldiz, 22.a zen. ■

BPGren rankinga

AEB	14,62
Txina	5,74
Japonia	5,39
Alemania	3,30
Frantzia	2,55
E. Batua	2,25
Italia	2,03
Brasil	2,02
Kanada	1,56
Errusia	1,47
India	1,43
Espainia	1,37
Australia	1,21
Mexiko	1,00
H. Korea	0,98

*Bilioi dolarretan, 2010 urtea



Tolosako Babarruna



Hoberenak soilik aukeratzen ditugu

☎ 943 650 253
www.tolosakobabarruna.com



*Eskura ezazu teorikoa 5 egundtan
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390
www.solozabalautoeskolak.es

Gazte ekoliderrak

Geroa zaintzeko eragile berriak

Gazte Ekoliderrak egitasmoak ekologia eta lidergoa uztartu nahi ditu. Jasangarritasunaren alde lan egiteko prest dauden gazte sare aktiboa sortzea da helburua. Kontzientzia ekologikotik ekintzetara jauzi egitea da xedeetako bat.

SAIOA LABAKA

Argazkia: Ekoliderrak egitasmoa

EKOLOGIAK eta lidergoak bat egiten duten egitasmoa Donostiako Zaba-legi lursailean Kutxa sortzen ari den Ekogunearen baitan sortu da, eta Eusko Ikaskuntzak eta Cristina Enea Fundazioak ere babesten dute. Itsaso Olaizola egitasmoaren arduradunak azaldu dizkigu ardatz nagusiak.

Ingurumena babesteko beharren aurrean, eta egungo gizartea jasangarritasunerantz bideratzea erronka handia izaki, eragile berrien premia ikusi dute egitasmoaren antolatzaileek. 18-29 urtera arteko gazteei eta, bereziki, ingurumenarekin sentsibilizatuta daudenei zuzendutako egitasmoa da. 2010ean antolatu zuten lehen edizioa, eta erantzun ona jaso ostean, bigarren edizioa urtarrilean jarri zen abian. Hogei bat diziplinetako 32 parte hartzaile daude aurtengo edizioan eta sei hilabetez ariko dira lanean.

Talde lana bultzatuz

Rockefeller Fundazio estatubatuarrek 1991. urtean abian jarri zuen *Lead (Inspiring Leadership for a Sustainable World)* proiektuan oinarrituta dago Gazte Ekoliderrak. Garapen jasangarriaren arloa eta lidergoa lantzen dituen nazioarteko formazioa da berau. Egitasmoa Euskal Herriko errealitate eta beharretara egokitu dutela adierazi digu Itsaso Olaizolak: “Eragile asko dago gurean hainbat ekintza burutzen



Ekolider izan nahi duten gazteak Juan Gorriti eskultorearekin.

dituztenak; talde ekologistak, feministak, euskalgintzako elkarteak... Elkarrekin proiektu bateratuak egitea ez da sarri gertatzen, ordea. Gazte Ekoliderrak programan hainbat diziplinako gazteak ekintzara bideratu nahi ditugu, baina talde lanean”.

Trebatu, Ekin eta Izan

Gazte Ekoliderrak egitasmoak hiru fase ditu. Lehen fasea *Trebatu* izeneko trebakuntza aldia da. Garapen jasangarriari eta lidergoari buruzko ikasgaiak lantzen dituzte unibertsi-

tateko irakasleen, erakundeetako ordezkarien, profesionalen, aktibisten eta mendizaleen eskutik, beste. Ekologiaren dimentsio zabalean, hizkuntza-ekologiaren ikuspegiak ere badu tokia. Gero eta oihartzun handiagoa badu ere, ikuspegi berritzaile hori ez dago gizarteratuta. “Ekologia aztertzeke eta babesteko irizpideak eta ekologia beraren balioak, hizkuntzarentzat ere baliagarriak dira. Bioaniztasunak egun dituen galera arriskuen jatorri berak ditu hizkuntza aniztasunak. Adituek diote egun 6.000

hizkuntza inguru daudela, eta erdia baino gehiago mende honetan desgertuko direla. Askotan oharkabea pasatzen den gaia da hau, eta garrantzitsua iruditu zaigu honen berri ematea. Aurtengo edizioan, Soziolinguistika Klusterrak eskaini du ikastaroa, eta hizkuntza aniztasuna, hizkuntza banaketa eta hedapena, ukipen egoerak, homogenei-

**Ingurumena babesteko
beharraren aurrean,
eta gizartea
jasangarritasunerantz
bideratzea erronka handia
izaki, eragile berrien
premia ikusi dute
antolatzaileek**

zatzariskuak eta ekosistemen azterketa izan zituzten mintzagai”, adierazi digu Olaizolak. Hizkuntza ekologia praktiken adibideak ere ezagutu dituzte ikasleek. Batetik, Arizmendi Ikastolan lantzen ari diren Bazara programa, hizkuntza ekologia eta identitatea eraikitzen laguntzeko proiektua. Bestetik, Garabide elkarteak egiten duen lana ezagutzeko aukera izan zuten ikasleek. Hizkuntza komunitate gutxietako eragileekin lankidetzat proiektuak hitzartu eta aurrera eramatea da Garabideren lana.

Proiektua diseinatzeko

Trebakuntza jasotzearekin batera, ikasleek proiektu bat garatu, diseinatu eta ezagutzera eman behar dute *Ekin* fasean. Partaide bakoitzak gustuko duen proiektua proposatzen du eta ondoren taldean aukeratzen dira landuko diren proiektuak. Olaizolak jakinarazi digunez, helburua ez da proiektu bat egiten jakitea bakarrik, proiektu hori gizarteratzeko edota plano

Ekoliderak hizketan

“Askotan iruditzen zait etorkizuna idatzirik balego bezala jokatzeko dugula, ezer aldatu ezin bagenu bezala. Egitasmo honek erakusten dizu hori ez dela horrela, bakoitzak bere neurrian egin ditzakeela gauzak. Begiak irekitzeko baliagarria da egitasmoa”. **Amaia Otazo, Gazte Ekoliderak 2010eko partaidea. Donostia, 1983 (Ingurumen Zientziak ikasitakoa)**

“Bi hilabete dira ikastaroa hasi dela eta trebakuntza saioetan gai asko landu ditugu. Ekologiaren inguruko ikuspegi orokorra izateko ondo etorri zait. Bioaniztasuna eta hizkuntza ekologia gaiak landu ditut eta gauza berriak ikasi ditut. Lidergoaren gaia eza-guna nuen aurretik. Talde oso interesgarria dagoela iruditzen zait, lan egiteko gogoia duena. Orain arteko esperientzia oso positiboa izan da”.

Aitzol Martikorena, Gazte Ekoliderak 2011ko partaidea. Igeldo, 1981 (Enpresen administrazioa eta Zuzendaritza ikasitakoa)

errealera eramateko tresna eta baliabideak ezagutzea ere ezinbestekotzat jotzen dute. Ondokoak dira iazko ikasleek landutako proiektuak: *Mugikortasuna industriaguneetan*, *Aterpetxeak eta Ekobaserri Eskola barne dituen bidegorri-sare alternatiboa*, *Biztanleria ekoaktiboa bultzatzeko programa*, *Berderabiltzen* (behin betiko produktuen eta berrerabilpenaren kultura sarea) eta *Ez gaude berde* (jasangarritasuna eta ekologia ardatz duen telebista saioa). Aurtengo ikasleek aurki erabakiko dute zein proiektu landuko dituzten.

Aitzol Martikorena, 30 urteko igeldoarra (Donostia), Gazte Ekoliderak 2011 ekimeneko partaidea da. Ekologiaren inguruko gaiekiko beti izan du interesa, beste gazteekin elkarlanean egitasmoak bideratu ahal izatea aukera ona iruditu zitzaion, eta izena eman zuen ikastaroan. “Turismo jasangarriaren inguruko proiektua lantzea gustatuko litzaidake, edo gai honekin zerikusia duen bateren bat. Lan egiteko gogoia eta ilusioa badaukagu behintzat. Orain arte jasotako trebakuntzarekin pozik nago. Ikusiko dugu proiektuak aurrera ateratzen diren ala ez”. Izan ere egitasmo guztiek aurrera egingo duten bermerik ez dago.

Bukatutakoan ere lanean

Izan fasean, parte hartzaileek elkarrekin harremanetan jartzeko aukera daukate eta jasangarritasunaren alde lan egiten jarrai dezakete auzo, herri edo eskualde mailako egitasmoak landuz. *Sarea* deitzen diote horri eta bi edizioetako partaideak elkartzen dira. Sei hilabetetako lanaren ostean, gazteak *Sarean* antolatu eta elkarrekin ekiten dute modu autonomoan. Amaia Otazo donostiarrak iaz hartu zuen parte egitasmoan eta aurtengo edizioko koordinatzailea da: “*Sarea* deitzen diogun horretan, behin trebakuntza saioa amaituta, proiektuak proposatzen eta pentsatzen jarrai dezakete parte hartzaileek. Ez da, ordea, egitasmoak plazaratzeko plataforma bat bakarrik, jasangarritasunaren aldeko ekintzak elkarlanean bultzatzeko bilgunea baizik. Esaterako, *Transition* mugimenduari inguruko hitzaldia antolatu dugu, Gipuzkoako parketxeetan habiak jartzeko egitasmoa bideratzen ari gara eta hainbat eremutan identifikatu ditugun jardunbide jasangarrien gida aurkeztuko dugu”.

Babeslea: Bilboko Udala



Labayruren hiztegia osatuago

LABAYRU IKASTEGIAK duela bi urte *Labayru Hiztegia* eta *Diccionario Labayru* sarean zintzilikatu zituen. Papereko hiztegiaren eduki osoa ordea ez zuten jarri. Orain *hiztegi kontestuduna* izenekoak jarri dute sarean. Hiztegiko berba-sarrerei eta azpisarrerei adibideak gehitu dizkiete beraien erabilgune ohikoena eta naturalena erakusteko.

'Bilingual pun' euskaraz eta gaztelaniaz

MARKOS GIMENO palindromo sortzaile ezaguna da eta zaletasun

horrekin segizen duen arren beste-lako hitz jolasa proposatu du bere blogean. Ingelesezt *bilingual pun* deitzen zaio, alegia, bi hizkuntzatan irakur daitezkeen esaldiak osatzeko ariketa da. Hona adibide bat:

“Bostezaba tu colega mi aereo dolor de ánimo ¡Ja!” gaztelaniaz, eta euskaraz:

“Bost ezabatuko. Legamia ere odol. Ordea, ni, moja”.

1,6 milioi euro hiru eleko eredurako

EUSKO JAURLARITZAKO Hezkuntza Sailak 2010-2011 ikasturtean jarri zuen abian hiru eleko hizkuntza eredu ikastetxeetan. Sail horren

arabera, eredu berriak ikasleen ingeles maila hobetu nahi du, gaztelaniari eta euskarari kalterik egin gabe.

Esperientzia piloto batzuk hasi zituzten 2010eko hondarrean eta 600.000 euro bideratu zituzten ikasturte horretarako. 2011-2012rako 1,6 milioi euroko aurrekontua adostu dute, batik bat irakasleek ingeleza ikas dezaten, izan ere, orain arte baino ikastordu gehiago izango dira ingelesez. Hezkuntza sailburu Isabel Celaák azpimarratu du hiru eleko ereduak ez diola kalterik egingo euskarari, are gehiago “euskara sendotu, elebitasuna finkatu eta ingeleza aktibatuko” ditu.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Argitu dezatela euskal kutxek

Aurrezki kutxen eztabaidan, alderdi politikoen zarata baino ez da entzuten, kontrol politikorako erabileraren ingurukoa. Alabaina, aste honetan hasiko dira egiten Euskal Herriko lau kutxen batzar nagusiak. Lehenengo hilaren 11n egingo da, BBKrena, denen artean garrantzitsuena. Beharrezkoa da kutxa bakoitzak, krisiak eragindako 2010eko ekitaldiaren emaitzak azaltzeaz gain, bere operazioetako batzuk esplikatzea, eta batez ere etorkizunera begira zalantzak argitzea.

Beharrezkoa da kudeatzaile teknikariek esatea fusio hotzaren (BBK + Vital) edo fusio beroaren (BBK + Vital + Kutxa) alde egiten duten EAEn. Hiru kutxak Nafarroako CANekin fusionatzea izango litzateke logikoena eta naturalena, lurralde testuinguru berean kokaturik daudelako guztiak. Haatik, CAN, beste kutxa batzuekin bat eginda dago, eta gainerako euskal kutxekin CANek egin beharreko fusio posible eta desiragarriak gaur egun ez dirudi babesik aurkitzen duenik. CAN batez ere lurralde politikak sortutako arazo eta interesek baldintzaturik dago.

Beharrezkoa da kudeatzaile teknikari horiek, herrialdearen nazio eta ekonomia ikuspegitik, esatea zeintzuk diren aukera onenak finantza-teknikari dagokionez. BBK-k azaldu beharko du zergatik bat egin duen Andaluziako kutxarekin, Cajasurrekin, galera handiak dituenen. Horrela bere kaudimena murriztu du, oinarrizko kapitala %16,8tik –Espainiako altuena– %10,35 izatera igaro baita. CANek esplikatzea beharko du zergatik alboratu duen EAEko kutxekin fusionatzeko aukera, Euskal Herriak kanpoko kutxen alde egingez. Lau aurrezki kutxek argitu beharko dute zer gertatuko den Gizarte Ekintzekin: pribatizatu egingo dituzte? Murriztu egingo dituzte?

Juan Mari Arregi

BAHEA

Txerra Rodriguezek euskara elkar-teen Topaguneak kongresua egin aurretik idatzitako hausnarketa www.blogak.com/garaigoikoa-en: “Euskara elkarteek hasieratik helburua erabileran jarri zuten eta beste arlo batzuk ez dituzte behar bezala jorratu. Hori da kongresu honen oinarrietako bat. Eta nire zalantzak ditut. Erabilera landu da? Bai? Ala eskaintza izan da landu dena? Termino biak ez dira dikotomikoak: eskaintza barik, ez dago erabilerarik, baina eskaintzarekin bakarrik ez da erabilera bermatzen. (...) Eta zertara dator hau guztia? Ba, twitter euskaratzeko kanpaina jarri da abian. Eta ados nago, ados, eta neuk ere sinatuko dut. Baina... zertarako behar dut twitterreko interfazea euskaraz gero gaztelaniaz erabiltzen badut? Edo alderantziz... nik nahiago dut twitterren euskaraz normaltasunez idazten duen bat (bere interfazeak niri bost), honen alde sinatu duen eta erdaraz twitter erabiltzen duen euskaldun bat baino. Ala ez?”

Azpeitiko Udalak *¡Que se vayan!* esan du

ATXILOKETA, tortura eta espetxea. Horiek dira hondarreko asteak utzitako bigarren mailako hiru argazkiak. Argazki nagusian Estatuko abokatua ageri zen, Sortu legeztatzearen aurkako arrazoiak eskuan. Giro horretan, Sortu ETArekin, Batasunarekin edo legez kanpo utzitako ezker abertzaleko beste erakunde batzuekin lotzeko ahalegin mediatikoa nagusitu da. Eta berdin jarraitzen du aste honetan ere.



tziaren konplize? ETaren atentatu eta hilketekin erosoagoa eta ulergarriagoa zen torturaren aurrean ezikusiarrena egitea, isiltzea. Tortura agerian uztea ohi bezain konplexua da (ezin inkomunikazioa ezabatu, kamerak jarri, *habeas corpus* onartu...) horretarako borondaterik ez dagoe-nean, baina torturaren aurkako isiltasuna gero eta ageriagokoa izango da, izan lehendakaria ixiltzen dena, izan komunikabide

Iragan astelehenekoak dira ondorengo tituluak, Espainiako fiskaltzak bere inpu nazioa aurkeztu zuenekoak. Su-eten iruzurra adierazten du honek: "Su-etenak ez du gutxitu ETaren jarduna Frantzian. Frantziako lurretan azken urteetan izandako auto lapurketaren erritmo berarekin jarraitzen du gaizkile taldeak" (*El Correo*). "Sortu eta ETaren arteko 'lotura zuzenak'" (*El Mundo*): besteak beste, Sortuko sustatzaile batek ETako presoentzat dirua bildu duela kontatzen du, EHuko Informatika Fakultateko irakasle talde batek 18/98 auzipertuen senideen bidaiak finantzatzeko bildutako diruari erreferentzia eginez. Ildo beretik *ABC*: "Sortuko sustatzaile batek 45.993 euro bildu zituen ETako presoentzat". "Sorturen lagunen delituak" (*El Pais*), Euskaldunako ekitaldian izandako ezker abertzaleko zazpi pertsonen auzien berri ematen da. Oraingoz ez dago ezustekorik eta iragarritako kronika urratsez urrats betetzen ari da. Hala izango da Espainiako Auzitegiko Gorenak Sortu-ri buruzko bere epaia eskaini arte.

GIRO honetan gaitza da irudikatzeari ETaren su-eten garaian gau-

dela, are gaitzago bakerantz eramane gaitzakeen prozesu bat bizi dugula. Zeresanik ez azken lau atxilotu bizkaitarrek jasandako tortura salaketak entzun ondoren: bortxaketa, kolpeak, poltsa, mehatxu larriak... Nafarroako azken sarekadan atxilotutako Iker Morenok berak jasandako torturen eta tratatu txarren kontakizuna irakurtzean, hamaikagarrenez deskribatutako infernu bertsua azaltzen da berriz begien aurrean. 2009tik ezker abertzalearekin lotutako 100 gazte atxilotu dituzte, horietatik 90 espetxeratu eta 64k torturak salatu dituzte. Irudi luke ezer ez dela aldatu.

Baina aldatu da, aldatzen ari da: Estatuaren errepresioarena da gatazkaren kapitulu zehatz honetan geratzen den biolentzia bakarra eta Guardia Zibilaren tortura horren ikur gisa. Nor ote da orain biolen-

Estatuaren errepresioaren biolentzia da une zehatz honetan geratzen den biolentzia bakarra eta Guardia Zibilaren tortura horren ikur gisa

bat, izan zutabegile edo mugimendua bakezale.

Beste hainbat alorretan bezala, estatuen errepresioaren honetan berriz ere Ipar Euskal Herriatik jaso dugu ikasgai handia. Euren jardura politikoan aritzeagatik, atxiloketa, tortura eta espetxearen beldur ihesi joandako ezker abertzaleko zortzi gazteri aterpe eman diete hainbat hautetsik, horietako askok babes-tuen ideiekin bat etorri gabe ere. Eta gazteek ere mediatikoki beste era batera baliatu dute beren egotia korapilatsua. Azken emaitzak txarra izaten jarraitzen du, espetxea eta euroaginduaren mehatxua, baina orain, adibidez, hobeto neur liteke zer den eragingarriagoa: hamar zabor edukiontzi erre edo lzpurako itxialdia antolatzea.

Errepresioarenak balio du oraindik Espainiako gizartean -hara bideratuta dago hemengo fokoa- baina Euskal Herrikoan ez, edo askoz gutxiago. Eta Madrilek egungo bake prozesuaren kontrako norabidean jarraitzen badu, berandu baino lehen berriz zabalduko da indarrez aspaldiko *¡Que se vayan!*. Beste garai batzuk gogora ekarrita, Azpeitiko udalak -EA, ezker abertzalea eta Aralarren botoarekin- horixe eskatu berri dio Guardia Zibilari.

PELLO ZUBIRIA

Zerbitzu publikoak murriztearen aurka borrokak nonahi

Martxoaren 26an jende elkarretaratze erraldoia gertatuko da Londresko karriketan, krisiagatik estatu britainiarrak zerbitzu publikoetan ezarri dituen murrizketen kontra aldarri egiteko. Ehundik gora herri eta auzotan ari dira ‘anti-cut’ taldeak, klase guztietako ekintzetan, autonomoak baina aliantzan loturik. AEBetara zabaldu da mugimendua.

“HOW TO DO A BAIL-IN” ITZULTZEA ez da erraza, baina *YouTube* zerbitzuan esaldi hori jarrita eskaintzen zaizun bideoa ikusten baduzu berehala ulertuko duzu. UK-Uncut –Murrizketarik gabeko Erresuma Batua– mugimenduko neska gazte baten eskutik joango zara banku baten egoitzaz jabetzera... modu sinbolikoan bederik.

Bail-out negozioetako hizkeran erreskatea da, norbaitek zordun baten bermea ordaintzea. Azken hiru urteotan buru gainera jausi zaigun krisiaren testuinguruan, *bail-out* da estatuek banku askorekin egin dutena, sistema osorik pikutara joan ez dadin haien zorrak bereganatzea. Ezkerrak urte luzez aldarrikatutakoa –bankuen nazionalizazioa– baina arras alderantziz, estatuak zorrak baizik bereganatu ez dituelako.

Ditxosozko erreskateekin bankuek beren malurrak estatuei pasaturik, orain agintari politikoek diote ongizate gizartea sustatzeko nahikoa diru ez dagoela, eta zerbitzu publikoetan mozketak egin behar direla. Horren erantzuna da *bail-in* ekintza: herritarrok pagatzen ditugunez bankuen zorrak, egin gaitezen fisikoki bankuen jabe. *How to do a bail-in* bideoan ikusiko duzu gazte koadrila bat Barclays bankuaren bulego bat okupatzen, zertarako eta bertan liburutegi publikoa instalatzeko.

Gisa horretako ehunka ekintza burutzen dituzte Britainia Handian zientio bat herri taldek. *Anti-cuts: Alliance of defiance* (“Murrizketaren etsaiak: Desafioen elkartasuna” euskaratu genezake) artikuluan deskribitu du mugimendua *Red Pepper* aldizkari ezkertiarrek.

Talde batek hiru kide dauzkake kalean grafitiak egiten dituztenak eta beste bat kapaz da 3.000 jende mobilizatzeke. Taldeak bezain ezberdinak dira ekintzak. Batek irakurketa publikoa antolatzen du auzoko liburutegi publikoan, aldiz, beste batek hitza hartuko du udal biltzarrean gastu murrizketak eztabaidatu behar dituzten saioan, edo beste hark, berriz, mobilizazio iraunkorrako burutuko ditu ixtera kondenatu duten enplegu zerbitzua salbatzeko.

Klase askotako jendeak bildu dira mugimenduotan, izan laguntzarik gabe aurkitzear diren ama ezkongabeak, luzaz xomaian dauden langabeak edo unibertsitateko ikasleak. Mugimenduan erreferentzia den Oxford SOS taldeko batek honela laburbildu dio espiritua *Red Pepper*ri: “Elkarri laguntzen diogu borrokan, nork bere historia ezagutaraziz eta murrizketa horien bidegabekeria ikusgarri bihurtuz”.

Sei hilabeteotan ugaritu diren taldeen artean Oxford SOS da famatuenetako bat. SOS horrek laguntza

Tax Justice (Justizia Zergetan) blogetik hartutako argazkian, UnCut UK mugimenduko kide gazte honek afixean erakusten du Erresuma Batua egiten dituen gastuen bidegabekeria: herri basoetan pertsonako 30 zentimo gastatzen du, liburutegitan pertsonako 21 libra, eta, aldiz, bankuen erreskaterako pertsonako 31.250 libra. Erretratua joan den otsailean aterea dago, NatWest bankuaren Londresko bulego baten aurrean buruturiko protestaldian. Eskubitan, martxoaren 26ko martxa iragartzen duen kartela. Ageri duenez, sindikatuen gehiengoak biltzen duen Trade Union Council (TUC) da elkarretaratzearen sustatzaile nagusia, baina murrizketen kontrako taldeekin elkarlanean antolatuta dute. Ezinegon handia dago Britainia Handian dagoeneko zerbitzu publikoetan –haurren irakaskuntzan, unibertsitateetan, osasungintzan...– eta laguntza sozialetan estatuak egin dituen murrizketengatik.

eskea adierazten du baina bada ere *Save Our Services* (Gure zerbitzuak zaindu ditzagun) ideiarekin akronimoa. 60 kide biltzen ditu, elektro-posta bidez 400 gehiagorekin dago harremanetan eta jerarkiari gabe antolatuta dago, jarduera oso anitza burutzeko: ekintza zuzena, ikastaldiak, hitzaldiak, hedabide txikiak....

Manchesterreko *Anti Cut* taldea ere, Oxfordekoaren antzera, erabat autonomoa da. Badira gehiago. Autonomia horretatik antolatzen dute gero elkarlana sindikatuekin eta alderdiekin. Dena dela, beste gehienak askoz lotuagoak daude sindikatuekin. Sindikalista batek *Red Pepper*ri deklaratu dionez, “sindikatuek mugimendu sozial bihurtu beharra daukate”.

AEBetara hedatu dira

Oxford SOS taldeak gaur biltzen eta ordezkatzeko dirulaguntza publikoan murrizketek kaltetzen dituzten herritar asko. Hori lortzeko, hiru arau ezarri dizkiete kideek beren buruei. Bat, arazoa gainez daukaten herritarren parte hartzea bultzatu bilera guztietan. Bi, komunikabideak istorio bila hurbiltzen baitzaizkie, lagundu jendeari kazetarien aurrean gauzak ondo agertzen. Hiru, bakoitzaren neurriko ekintzak sustatu, txiki eta handi, isilpeko edo burrunbatsu.



Anti-cut taldeok kontraesan bat baino gehiagorekin aurkitu dira. Esaterako, alderdi politikoekin elkar-lanean hasita, zer eska dakioke eta zer ez udal ordezkari bati? Beste arrisku hau ere badago: murrizketa batzuen kontrako kanpainak arrakasta izanez gero ez ote duen ekarriko mozketak beste leku batera edo beste jende bati pasatzea. Oxford SOSeko kide batek deklaratu duenez, honetan ere bada NIMBY fenomenoan erortzeko arriskua. *Not In My Back Yard*, euskaraz “Nire etxe ondoan ez” esango genukeena, erreakzio oso gizatiarra da.

Martxoaren 26ko manifestazioak emango du Britainia Handiko ehundaka taldeon indarraren neurria. March for the Alternative deitu dute,

martxa eta martxo hitzegaz jolas eginez. “Esan ezetz beharrezkoak eta justuak ez diren murrizketei”. Sozialdemokrata batek sinatzeko modukoak eskatzen dituzte: bankuei zerga egokiak ezartzea –Robin Hood zerga famatua–, zergen iruzurra moztea eta enplegua eta hazkunde berdea sustatzea. Ez da herturarik hemen.

Mugimendua hilabeteotan Amerikako Estatu Batuetan ere hedatu da, Britainia Handiarekin batera neoliberalismoaren aitzindaria izan den hartan. Murrizketak sekulakoak dira han ere zerbitzu publikoetan, baina baita langileen eskubideetan ere, asteotan Wisconsin goi funtzionariak salatzen ari diren gisan.

AEBetan beste inon baino nabar-

menago ikusten da gizarte industria-lizatueta krisiak pobreak pobrego egin dituela eta aberatsak are lotsaga-beago. *Truth Out* gune aurrerazaleak deskribatu ditu AEBetan *Uncut* (Murriztu gabe) deitzen dituzten taldeak.

Bank of America bankuaren eskandalua salatzen dute bereziki. Horren gainbehera eta nazionalizazioan gertatzen ari direnak epelena haserretzeko moduak direlako, diru publikoz salbatutako bankuaren arduradunek kobratzen dituzten dirutza harrigarrekin eta abar.

“Estatu Batuen arazoa ez da defizita, arazoa da zergak ez direla kobratzen” salatzen dute talde horietatik. Estatuari dirurik uzten ez dioten multinazionalen adibide asko ematen dituzte. Horietako baten berri oraintsu jakin dugu hemen: ExxonMobil petrolio konpainia erraldoiak Espainia usatzen du paradisu fiskaltzat.


Britainia Handian ez bezala, AEBetan jendea uzkurrago dabil talde horietan nabarmentzeko. Korporazio handiek gobernuaren laguntzarekin horietan espioiak dituztela eta gaur ez bada bihar mendekua jasoko duten beldurrez mintzo zaio bat baino gehiago *Truth Out*.

Baina herriar askoren bizi mailak kolpe gogorra nozituta, *Uncut* taldeok gero eta oihartzun handiagoa daukate. Agintariak “austeritatea”, soiltasuna, aipatzen dute zerbitzu publikoak murrizteko, baina austeritate selektiboa da, beren buruei eta enpresen jabeek ezartzen ez diotena. Orain jendeak ez dira borrokatzen urrutiko oihanak salbatzeko, duintasunez bizirauteko baizik. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Aingeru Epaltza

Horrorea



ogorra da aitortzea. Lau urte honetan behin baino gehiagotan poztu izan naiz Nafarroa Bai herrialde honetako gobernura ailegatu ez izanaz. UPNren mespretxua eta baz-

terkeria nahiago, “gureen” arteko borroka-saio etengabearen eguneroko horrorea baino. Erran ohi da agintean errazagoa dela bizikidetzatza. Ez dut uste gobernamen-duaren ardurak zuhurrago bilakatuko zituenik. Koalizioa kideen arteko tirabirak jasanezinak eta ahalke emangarriak izan badira oposizioan geldituta, lotsaren lotsaz etxean gorderik gelditzeko modukoak izan ziren, haiek ardura postuetan egonda.

2007an inoiz baino hurbilago izan genuen Nafarroako gobernuan sartzea. Ez zen posible izan. ETAk bere historiako azkenaurreko faborea egin zion nafar eskuinari su-etenaren amaiera iragarritz hauteskundeak egin berritan. Alderdi sozialista berez kakaztuak ez zuen presioa jasan. Amore emanda, UPNren eskumakila bilakatu zen behin berriz. Gaitz erdi, aukera bat izan zitekeen Nafarroa Bairendako, legegintzaldia erabili balu bere oinarri soziala zabaltzen eta adabakien jostura hutsarekin mugimendu sendoa egiten, hurrengo bozketak helburu. Batari nahiz bertzeari lehen minututik egin zioten uko koalizioa osatzen zuten alderdiek.

Amesgaiztorik gaiztoenean ere ez genuen amestuko gure ordezkariak eman diguten legegintzaldi espantagarria. Gauza onik eginen zuten, baina horren akordua ere ez dut. Denak itzali ditu eskaini diguten ikuskizun pena emangarriak.

Anitz dira Nafarroa Bai koalizioa barnetik usteldu duten harrak. Buruzagien alderdikeria, eskuzabaltasun falta eta ikuspegi motza ez da noski azkenetakoa. Gure askan edaten ez duten bertze nafarrei zuzenduriko elkar aditze mezu batekin joan ziren hauteskundeetara. Ez dira gauza izan delako errezeta etxean aplikatzeko. Nor bere proiektuñorako lanean ari izan da, inolako ardurarik gabe itxuraz batzen zituen proiektu handiagoaren aldera. Azken asteetan lehertu da kontua. Leherkariak aspalditik zeuden jarriak.

Ez da gaurko afera. Buruzagi politiko abertzaleak “klabe nazionalen” mintzatzen



DANI BLANCO

hasien direnean, okerrearen esperoan egoteko prest egon behar izaten dugu Nafarroan. EAEko interferentziek ia-ia hatsik gabe uzteraino ito dute Nafarroa Bairen proiektua. Inor ez dago bekatutik libre. EAJ ere ez. Are gutiago Aralar. EAK marka guztiak gainditu ditu ezker abertzalearekiko uztarria herrialde honetara ere ekartzen tematuta.

Erkidego Autonomoan ongi saldu den ameskeria da: Aralar + EA + Ezker abertzalea – EAJ = Nafarroan nagusi. Kalkulagailuan pilak paratzea atzendu zaio analisiaren egileari. Legezatzeko kontuetan sartu gabe ere, ezker abertzalearen boto ekarpena inoiz ez zen izanen aurkariena berdintzeko adina. Inork ez du, gainera, kalkulurik egin halako operazio batek zer boto galera ekarriko lukeen sokaren bertze muturretik. Pozgarria da Sortu alderdi berria bakezale agertzea. Poztetik 30 urte honetaz ahanztera tarte han-



Gogorra da aitortzea. Lau urte honetan behin baino gehiagotan poztu izan naiz Nafarroa Bai herrialde honetako gobernura ailegatu ez izanaz. UPNren mespretxua eta bazterkeria nahiago, ‘gureen’ arteko borroka-saio etengabearen eguneroko horrorea baino




diegia da oraino. Gobernua osatzeko sozialistekiko negoziatio hipotetiko batean, azkenik, abantaila guti izanen zukeen ezker abertzalearen presentziak.

Horiek guztiak balizkoak dira, dena dela. Nafarroa Bai aurkeztu berri zaigu, maiatzeko desafiorako prest, nonbait. Arindu itxuran, mehetua. Gertatuak gertatu, irudi hobetik ez zezakeen ager, beharbada. Ez du lan makala 2007ko ilusioa berpizten. Hoberik ezean botoa emanen diogu, zer erremedio, Barcinak den-den-dena jan ez dezan. Badugu horretan eskarmentua. Esperantzarik? Batere ez. Sortu gabe dago atakatik aterako gaituen proiektu politikoa. ■

ASTE HONETAKO

zozketa



Laia Erreategia

Afaria 2 lagunentzat

Arkolla auzoa, 33
Hondarribia GIPUZKOA

www.laiaerretegia.com

1



Bilboko Euskal Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

2



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

3



Ibernalo Landetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Kanpezu ARABA

www.ibernalarural.com

4



Kirolaz Badakit

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2266. Argia)

URBANO JATETXEA

- Jose Ramon Furundarena Salsamendi (Usurbil)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Zunbeltz Elkartea (Villabona-Amasa)
- Joxin Iturriotz Ostolaza (Azpeitia)
- Joseba Berriozabal Urkiza (Zumaia)
- Lurdes Uzkudun Etxenagusia (Errezil)

KONTZERTUA BIDE ERTZEAN

- Unai Dorronsoro Zeberio (Bilbo)
- Ibai Mercado Erentxun (Donostia)

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

- Gotzon Egia Goienetxea (Donostia)
- Estitxu Kortejarena Ugarte (Tolosa)
- Juan Jose Belamendia Senperena (Azkoitia)
- Jesus Lazkanoiturburu Arregi (Legazpi)

NAIROBITARRA

- Malentxu Arrospide Arrate (Lizartza)
- Gorka Bueno Mendieta (Bilbo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

eus alaketa

17.^{æk} korrika



SARI NAGUSIA:

Bi pertsonarentzako Kariberako bidaia



HERRIALDEETAKO SARIAK

Bi pertsonarentzako astebukaerako egonaldiak hainbat landetxetan

BAKARRIZKETA LEHIAKETA

Oinarriak www.korrika.org web-gunean

Izena emateko:

korrika17@gmail.com e-postaren bitartez.

Beharrezko datuak:

izen-abizenak, parte hartuko dueneko herrialdea, telefonoa eta posta elektronikoa.

www.korrika.org